

Herririk Herri |2|
Lurpeko zaborrontziak doitu eta
mantenua hobetuko dute Durangon

Ekonomia |10|
Mobilizazioak "gogortuko" dituzte
Injectametaletako beharginek



Berbaz |9|
Adierazi EH: "Adierazpen askatasun
faltari buelta eman gura diogu"

EMAk 18 langile kaleratu gura dituela salatu du ELA sindikatuak

- > El Material Aislante (Abadiño) enpresako zuzendaritzak 18 kaleratze aurreikusi dituela diote
- > Sindikatuak bideragarritasun plana bertan behera uzteko eskatu diote enpresako arduradunei

10

Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi du Zain laukote berriztarrak

KULTURA • Joan zen egunean jakin zuten Zain musika taldeko lau gazteek Gaztea Maketa Lehiaketaren finalera heldu ziren Euskal Herriko hamar talde eta bakarlarien artean eurak aukeratu dituela epaimahaiak irabazle. Dirutan sari handia jaso eta Bilbao BBK Live jaialdian jotzeko aukera izango dute.

13



Dekorazio
Gehigarria



Anbotoko Kilometro Bertikala punterengo arineketalariekin

Durangaldea • Anboto Kilometro Bertikalak espezialitateko korrikalari onenak batu-ko ditu zapatuan. Lasterketako lehenengo lehiakideak 15:00etan irtengo dira Arrazolatik Anbotora. Brinean taldeak hirugarrenez antolatu duen proba Euskadiko zein estatuko lasterketa bertikaleko kopen artean lehenengoa izango da.

17

•Elorrio

Kale eta auzoen izendegia gaurkotu dute

6

•Atxondo

Herritarren parte-hartzeari buruz hausnartuko dute

4

•Otxandio

Astlehenean ipiniko dute martxan Berbalagun

7

•Abadiño

Gizarte laguntzen araudia berrikusi eta aldatu dute

4

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industrigunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Lurpean dauden zaborrontzien mantenua hobetugura du Udalak

Lurpeko zaborrontzien konponketa eta mantenu lanak esleituko dituzte 133.000 euroko atalagaz

Lurpeko zaborrontzien datoren urte bietarako —beste urte bian luzatzeko aukeragaz— doitze eta mantenu lanak esleituko ditu Udalak laster. Prest dute baldintza-orria, eta ahalik eta arinen aterako dute lehiaketara 133.000 euroan.

Durango lurpeko 37 zaborrontzi daude sei esparrutan banatuta: Komentukale, Kanpatorrosteta, Monago Torre, San Agustinalde, Zumalakarregi eta Sasikoan. Zaborrontzien funtzionamendua hobetze aldera, kontratuak egin behar nagusi bi nabarmentzen ditu: doikuntza eta mantenua. Sasikoako azpiegiturretan (7 zaborrontzi) ez dute doikuntza lanik egingo "berriak direlako", Aitziber Irigoras alkatearen esanetan. Beste guztietan lanak esleitu eta hiru

hilabeteren barruan burutu beharko dituzte lanak: "Eskakizun hori zehaztu dugu lanak ahalik arinen egitea gura dugulako". Zaborrontziei egingo dizkieten doikuntzen artean daude kanpoko itxura hobetzea eta kaxa elektrikoak berritzea, esaterako.

Mantenu lanak denei eragiten die eta bi motatakoak dira: prebentziokoak eta ohiko konponketak. Prebentziokoak kasuan gertatu daitezkeen matxurei aurrea hartzea da helburua. Horretarako, hiru hilerik behin garbiketa orokorra egin eta azpiegituren funtzionamendua kontrolatuko dute. Konponketen kasuan, "salbuespenak salbuespen, konponketak 24 orduren barruan egingo dituzte, asteguna zein asteburuan izan", baldintza orrian jaso dutenez.



Kanpatorrosteta eta Komentukaleko zaborrontziek sortu izan dute arazorik gehien.

Kanpatorrostetako ontziak

Arazorik gehien eman duten lurpeko zaborrontziak Komentukalekoak eta Kanpatorrostetakoak izan dira. Arrazoi nagusiak jendearen aldetik izan duten "erabilera ez zuzena eta behin baino gehiagotan jasandako ekintza bandalikoak dira", azpiegitura elektrikoak hondatuz. Kanpatorrostetaren kasuan, Udaltzaingoak "zaintza bereziak egin ditu eta hainbat laguni ohartarazi diote erabilera desgokori horren gainean". ■ J.D.

DAZek gogoratu du zazpi urtean ibili direla "irtenbide bat eskatzen"

Lurpeko zaborrontzien mantenu berriak arazoak konpontzen dituen ikusi egin beharko dela, "baina azken zazpi urteetan behin eta berriro errepikatu duten eskaera" dela azaldu du Durangoko Alde Zaharra elkarreko lehendakari Jose Mari

Fernández de Arrillagak: "Sei urtean behin bakarrik batzartu dira gugaz", dio. "Erabilera okerra zaintzea ondo dago, baina kotxea txarto aparkatzen dutenei multa ipintzen zaie ordenantza jarraituz; zaborren kasuan zeralde dago?", galdetu du. ■ J.D.

300 lagunek ospatu zuten Ibaizabalen 10. urteurrena

Ikastolagaz lotura izan duten hainbat bertsolari eta musikariren saioak izan ziren ospakizun egunean

Joan zen zapatuan Ibaizabal ikastolaren 10. urteurrena ospatu zuten. Ibaizabalen batu eta trikitipoteoan egin zuten Kurutzia ikastolaren bidea. 300 bat lagun batu ziren hango frontoian egin zuten bazkarira.

Bazkalosterako hainbatekitaldi zituzten prestatuta. Lehenengo, Glori Ibaizabaleko sukaldaria omendu zuten.

Ondoren, Ibaizabalegaz modu batera edo bestera lotura izan duten gazteek hartu zuten testigua. Lehenengo Ibaizabalen ibilitako hainbat bertsolariren saioagaz gozatu zuten bertaratu zirenek. Ondoren, Oxabi taldearen erromeriak dantzarako doinuekin estali zuen frontoia. Amaitzeko, Zaparrada batukada taldearen emanaldia izan zen. ■ J.D.



Kurutzia ikastolako frontoian batu ziren bazkaritara.

Jendeak "interes handia" erakutsi du igerileku zein azpiegitura berriekiko

Lehenengo astean, batez ere, informazio eske hurreratu da jendea igerilekura

Oraindik datu zehatzak emateko goizegi bada ere, jendeak igerileku zein azpiegitura berriekiko "interes handia" erakutsi duela adierazi du Alejandro Bilbao Durangoko kirol azpiegiturretako arduradunak: "Izena ematera baino, informazioa eskatzera etorri dira gehienak lehenengo aste honetan. Tasak, prezioak, eskaintzen ditugun ikastaroak...".

Gainerako azpiegiturek ere harrera ona izan dute, baina guztietatik "fitness eta spinning klaseak" bereizi ditu Bilboak, harrera oso ona izan dutelako. "Aquaspinning saioak hartzeko ere geroago eta jente gehiagok erakusten du interesa", azpimarratu du.

Igerileku handienak kloroz tratatzen dituzte, eta asteon gaztetxo batzuk galdetu ei dute, kloroari alergia diotenez, ea zer alternatiba duten. Igerileku irregularrak eta olgetakoak bromoagaz



Harrera oso ona izan ohi dute igeriketa ikastaroek.

Igerilekuekiko ez ezik, batez ere, fitness eta spinning klaseekiko interesa erakutsi dute bisitariek

tratatzeko dira, eta hantxe eskainiko diete alternatiba.

Igerilekuak 08:00etatik 22:00etara daude zabalik astegunetan; zapatuetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara zabaltzen dituzte, eta igandeetan 09:00etatik 14:00etara. ■ J.D.

Karmeldar komentua zena osasun zentro pribatu bihurtzeko arauak egokitu dituzte

Arau subsidiarioen aldaketa puntuala onartu zuten udalbatzarrean; Aralar abstenitu egin zen

Azkeneko udalbatzarrean karmeldar oinutsen komentua zeneko zati bat izaera pribatuko osasun zentroa bilkatzeko arau subsidiarioen aldaketa zehatza onartu zuten. Aralar abstenitu egin zen eta beste alderdi guztiek alde egin zuten.

Baiezkoa eman zuten alderdi gehienek enplegua sortuko duela azpimarratu zuten

Aldaketa horren berri emateko inguruko bizilagunak batzarreara deitu zituztela eta joan zirenek aldeko jarrera erakutsi zutela adierazi zuen udalarkitektoak.

Aralar alderdiko Dani Maezturen ustez, "inguru horietan tan- kera horretako ekipamenduak daude apurka erabilerara aldatzen dabiltzanak, eta datozen urteetan

antzeko kasuak emango dira, joera soziologikoa horixe delako". Beraz, "Udalak, dauzkan eskumene- kin eta ahal den neurrian, eraikin horiek erabilerara publikorako berreskuratzen saiatu" beharko lukeela aipatu zuen.

PPko Juan Jose Gastañazator- reren ustez, "enplegua sortzea ahalbidetuko du eta, gainera, Gal- dakaoko ospitalerako joan-eto- rrien emaria txikitu". Gainera, bizi- lagunek "aldeko jarrera" erakutsi izana ere azpimarratu zuen.

Sozialistek osasunaren arloan "eskaria badagoela" adierazi zuten, eta alde horretatik "beharrezko" ikusten dutela horrelako zentro bat. Lanpostuak sortuko dituela ere esan zuten. Azkenik, proiektua garatzen denean sortu daitez- keen trafikoa arazoan azterketa egi- tea eskatu zuen.

Aitziber Irigoras alkateak bat egin zuen PP eta PSE-EEgaz enple-



Komentua zeneko eraikineko zati bat erabiliko dute.

gua sortuko dela azpimarratzera- koan, eta ekimen pribatua den arren "interesa orokorragaz lotze- ko modukoa" dela aipatu zuen.

Oier Perez Talde Mistoko zine- gotziak arau subsidiarioetako alda- keta puntuala izatea azpimarratu du, eta ez aldaketa osoa: "Horrela, Udalak kontrol handia- goa mantenduko du eta nego-

zioak aurrera egin ezik, esaterako, gura dutena egiteko mugatuago egongo dira".

Udalbatzar berean arau sub- sidiarioen antzeko beste aldake- ta puntual bat onartu zuten. Orain arte gimnasioa zegoen Mingola- rra eraikinean —Fray Juan de Zumarraga kalean— jatetxe bat egokitzea ahalbidetuko du. ■ J.D.

EGARAI

Olio batzeko edukiontzia ipini dute

Asteon ipini berri dute olio batzeko edukiontzia Garain. Herritarrek, beraz, birziklatzeko aukera izango dute hemendik aurrera.

San Migel plazan egokitu dute edukiontzi berria. Udale- txean hartu behar dira olio gor- detzeko lehenengo poteak, eta erabili ondoren edukiontzira botatzean, automatikoki beste bat irtetzen da ontzitik. Modu horretara, zikina bertan gera- tzen da eta hutsik dagoen bat eroango dute erabiltzaileek.

Ontzia erabili ondoren, edukiontzira bota eta automatikoki hutsik dagoen beste bat irtetzen da

Orain arte, olio birziklatu gura zuenak beste herri batera joan beharra zeukan, Udaletik argitu digutenez. Aurrerantzean, jendeak edukiontzia erabiliko duelakoan daude. Edukiontzia eta bere mantenua bost urtera- ko alokatu ditu Udalak. Hiru hila- betean behin, erabileraren emai- tza edo datuak emango dizkio Udalari zerbitzua kudeatzen duen enpresak. ■ M.O.

SAN TROKAZ 2010



MAIATZAK 12, EGUAZTENA

- 21:00etan. **GERBASen** kalejira txistulariekin eta Abadiño-ko **ezpatadantzarien** ekitaldia San Trokaz plazan. Jarraian kartel lehiaketa-ko sari banaketa.

MAIATZAK 13, EGUENA

- 18:30ean. Binakako **San Trokaz txapelketa**ren final aurrekoa trinkete- an.

MAIATZAK 14, BARIKUA

- 17:30ean. **Porrotx** probalekuan. Jarraian **Mireia** haurrentzako ipuin kontalaria Gaztetxean.
- 22:00etan. **Ruper Ordorika**, probalekuan. Jarraian, Bertsio gaua, Gaztetxean: • **Delirium Tren Ez** • **3gabe2** • **Eskupitajo**

MAIATZAK 15, ZAPATUA (SAN TROKAZ)

- 12:00etan. Meza Nagusia. Ondoren, Abadiño-ko **ezpatadan- tzari** eta irlanderen dantzaldia, San Trokaz plazan.
- 18:00etan. **Txan Magoa** probale- kuan.

- 18:00etan. **San Trokaz txapelke- ta**ko eskuz binakako pilotako finala, Atxarte pilota eskolak antolatuta.
- 21:00etan. **Parrillada** txosna gunean, Txanporta plazan.
- 23:00etan. **Zea Mays** eta **Su ta Gar** txosna gunean, Txanporta plazan.

MAIATZAK 16, DOMEKA

- 08:00etan. Txori Kantarien VII. **San Trokaz txapelketa** Zelaietako eskoletan.
- 10:30ean. Binakako **San Trokaz txapelketa**ren finala trinkete- an.
- 11:30-13:30 eta 16:30-19:30. **Haurrentzako jolastokia** (puzga- rriak, bizikleta eroak, jolasteko pantailak, eskumuturrekoak egi- teko tailerra...) Ferialekuan.
- 18:00. "**Karakolaren gaua**" antzerkia Gaztetxean, Zurrunga antzerki taldearen eskutik.
- 20:00etan **Tortilla txapelketa** Ferialeku plazan.

MAIATZAK 21, BARIKUA

- 16:30-19:30. **Umeendako jolas- tokia** (quad zirkuituak, ludoteka,

txirrista, aerografo tailerra...) Ferialeku plazan.

- 19:00etan. **San Trokaz txapelke- ta**ko eskuz binakako pelotako finala, Abadiño-ko herritarrek antolatuta.
- 23:00etan. Kontzertuak:
• **Reincidentes** (Andaluzia)
• **Governors** (Euskal Herria)
• **Odi** (Països Catalans)

MAIATZAK 22, ZAPATUA

Talde Batuak dantza taldearen 40. urteurrena.

- 12:30ean. **Kalejira** eta **dantza** saioa, dantzari ohiekin.
- 14:30ean. **Herri Bazkaria**, Ferialekuan.
- 17:30ean. **Erromeria** alaia Ferialekuan.
- 16:30-19:30. **Umeendako jolas- tokia** (zezen mekanikoa, puzga- rriak, ludoteka...) Ferialekuan.
- 19:00etan. 2010eko **Bizkaiko haur kantari txapelketa**ko kanpo- raketa probalekuan.
- 20:00etan. **Abesbatzen ekitaldia** elizan: • **Arte Factum** (Mungia) • **Tantak Korala** (Mungia) • **Usansoloko Orfeoia**

- 13:30ean. **Amaïur** taldearen erromeria Txanporta plazan.

MAIATZAK 23, DOMEKA

- 10:30ean. Abadiño-ko neskato- mutikoen **igeriketa jolasak** udal igerilekuetan, Astola Igeriketa Kirol Taldea.
- 11:00etan. **Txistularien kalejira** (Abadiño-ko Txanbolin).
- 11:30-13:30 eta 16:30-19:30. **Haurrentzako jolastokia** (kapla eta tamgran jolasa, txapa tailerra, jolasteko pantailak, txirrista, puz- garriak...) Ferialekua plazan.
- 11:30ean. **VII. San Trokaz Igeriketa Txapelketa** udal igeile- kuetan: Tabira (Durango), Markina, Zornotza, Gernika eta Astola Igeriketa Kirol taldeak antolatuta.
- 17:00. **Sokatira herrikoia** proba- lekuan. Jarraian **Zaparrada Batukada** taldearen kalejira pro- balekuan hasita. Jarraian, ikuski- zuna Txanporta plazan.
- 19:30ean. **Txokolatada** Txanporta plazan.
- 20:00ean. **GERBASi** agurra eta jaien amaiera.

San Trokazetako jai batzordea

ATXONDO

Herritarren parte-hartzeari buruzko tailerrak, hilaren 12tik 14ra

Atxondoko herri nortasunaz eta herritarren partaidetza esperientziez berba egingo dute

Agenda21, kultur taldeen esperientzia, pleno irekiak... herrian parte hartzeko hainbat bide egon daiteke. Atxondon herritarrek parte-hartzeagaz izan duten esperientzien inguruko tailerrak izango dituzte maiatzaren 12, 13 eta 14an. Tailerren helburua parte-hartzea aurrerantzean hobetzeko ondo-

Antolatzaileek ahalik eta esparru gehienetako jendeak parte hartu dezan gura dute

Herritarren parte-hartzea hobetzeko ondorio praktikoak atera gura dituzte

rio baliagarriak ateratzea dela azaldu dute bultzatzaileek.

EHUK eta Atxondoko Udalak iaz hitzarmen bat sinatu zuten herritarren parte-hartzeari buruzko diagnostiko bat egiteko. Horretan lanean dabilta Parte Hartuz elkartearen laguntzagaz, *Partaidetza eta komunitate-garapena* masterreko bost ikasle.

Herritarrek eurek "autodiagnostikoa" egitea da partaidetzaren oinarrietako bat, eta horretarako hurrengo pausua maiatzeko tailerrak egitea da.

Tailerreko edukia

Liburutegian egingo dira tailerrak, iluntzeko 19:30etik 20:45era. Lehen egunean, hilaren 12an, herriko identitate kolektiboa izango dute berbagai; kultur eskaintza eta elkar-



Partaidetza eta komunitate-garapena masterreko ikasleak tailerren aurkezpenean.

teen dinamika zelakoa den ere aztertuko dute. Maiatzaren 13an orain arte ko parte-hartze esparruak aztertuko dituzte. Hirugarren egunean balorazio orokorra egingo dute, gauzak zelan hobetu daitezkeen hausnartzeko.

Apatako Liburutegian izango dira tailerrak, iluntzeko 19:30etik 20:45era

Hilaren 26an azken batzar bat egingo dute. Bertan, ordura arte batutako informazioa aztertuko dute, eta herritarrek parte-hartzearen diagnostikoari azken xehetasunak gehitzeko aukera izango dute. ■ A.U.

EAJk alkateari buruzko salaketa berretsi du

Ezker abertzaleak epaitegietara jotzeko asmoagaz jarraitzen du EAJren erantzunaren ondoren

David Cobos alkatea pisu tutelatu batean bizi dela salatu zuten, komunikabideen bitartez, EAJko zinegotziek duela aste bi, eta salaketa horregaz jarraitzen dutela adierazi zuten, joan zen barikuan, komunikabideetara bidalitako beste ohar batez.

Ezker abertzaleak joan zen astean agerraldia egin zuen salaketa horren aurrean. Agerraldian pisu tutelatu horregaz Udalak izandako alokairu kontratua etenda dagoela esan zuten, eta EAJk "eze-lako informazio barik" horrelako salaketa egitea "larria" dela iritzi zioten. Zinegotzi jeltzaleek astebete esandako guztian atzera egin ez bazuten epaitegietara joko zutela ere azaldu zuten orduan ezker abertzalekoek.

Ezker abertzalearen erantzunaren aurrean, EAJk prentsa oha-

rra bidali du komunikabideetara, arinago salatutakoa berresteko. Oharrean adierazten dute jakin gura dutela "Atxondoko alkatearen asmoa ote den eztabaida politikoa espainiar epaimahaietara eramatea".

David Cobosek adierazi du, euren adierazpenetan atzera egin ez dutenez epaiketara joateko asmoak jarraitu egingen duela. Abokatuak kereila sartzeko beharrean dabilzala aurreratu du, eta auzia komunikabideetatik aldentzeko nahia azaldu du. ■ A.U.

Atzera ez dutela egingo azaldu dute EAJko kideek, komunikabideetara bidalitako ohar baten bitartez

Posta bulego berria zabaldu dute astean

Asteon, eguaztenean, zabaldu dute Atxondoko posta bulego berria. Lehengoa baino handiagoa da zabaldu berri duten bulegoa, eta lehengo ordutegi beragaz egongo da zabalik.

Orain arte herriko brigadentzako aldagelak eta biltegia egon diren lokalean dago orain posta

bulego berria. Brigadentzako lokal berria maisuen etxea zenean dabilta atontzen orain. Amankomunazgoak kontratatatu dituen zortzi langile dabilta behar horretan. Abuztuan amaituko dituzte bertako lanak.

Aste Santu osterako aurre-kosten zuten posta bulegoa zabaltea, baina astean zabaldu da azkenean. Osakidetza kontsultategia zabaltzeko lanengatik aldatu dute posta bulegoa lekuz, beste hainbat zerbitzugaz egin duten moduan. ■ A.U.

ABADIÑO

Gizarte laguntzen araudia berrikusi eta aldatu dute

Joan zen asteko udalbatzarrean aho batez onartu zuten Gizarte Laguntzarako Ordenantza aldatzea

Bizkaiko Aldundiak gizarte laguntzak kudeatzeko araudian egin dituen aldaketak aintzathartu eta berrikusi ondoren Ongizate Batzordean onartutako aldaketak aho batez onartu zituzten, joan zen asteko osoko bilkuran. Orain hamar urtetik berrikusi barik, "zaharkitua" zegoen araudia "gaurkotu" egin dute.

Hamar urtean berrikusi barik zegoen gizarte laguntzen udal araudia

Jeltzaleek, ezker abertzaleak zein Udal Gobernuako Talde Independienteak aho batez onartu zuten ordenantza berrikusten hiru hilabetez jardun dutela azaldu du Ongizate Batzordeko lehendakari den Marisa Vázquezek, eta gizarte laguntzaileen aholkularitzagaz egin dituztela moldaketak.

Bigarren etxebizitza bat daukanak ezingo du, ordenantzan egindako aldaketen arabera, Udaleko Ongizate Sailaren diru-laguntzarik jaso, eta urtean 12.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenek ere ez. ■ I.E.

Behargin euskaldunen lan-poltsa

Langile euskaldunen eta eskatzaileen arteko bitartekaritza lana egingo du, behargin euskaldunen lan-poltsa sortuz, Abadiño Udalak. Umeak edo adinekoak zaintzen dituzten herritar euskaldunek, aisialdi eta kirol begiraleek, eta eskola partikularrak ematen dituztenek eman ahalko dute zerrendan izena. Udalaren euskera@abadiano.org helbidean zein Txanporta eta Errota kultur etxeetan eman daiteke maiatzaren 14ra arte lan-poltsan izena. Euskararen transmisioan izan lezakeen eragin positiboa dela-eta, Udalaren I. Euskara Planean jasota dago lan-poltsaren sorrera. ■ I.E.

IURRETA

Lurpeko zaborrontziak ipiniko dituzte Askondon

Gainazaleko zaborrontzien ordezturpekoak ipintzeko lanak uda aurretik hasiko dituzte

Askondo kalean egingo dituzte, Totorikaguena alkateak aurreratu duenez, zaborrontziak lurperatzeko hurrengo lanak. Lehena go herriko beste gune batzuetan legez, oraindik ere gainazaleko zaborrontziak dauden lekuetan burutuko dituztela: helburua,

Estetika zein garbitasuna hobetzeko dihardu Udalak gainazalekoen ordezturpeko zaborrontziak ipintzen

alkatearen berbetan, "bai alde estetikoetik bai garbitasunari dagokionez, hobekuntzak egitea" da, eta zaharkituta geratu diren zaborrontzien ordezturpekoak eta modernoagoak ipintzea.

Askondon, gaur egun gainazalean dauden 15 ontzien ordezturpeko zaborrontziak gune bi: BBKren bulegoaren ondoan bata eta udal bulego berrien parean bestea. Guztira, 200.000 euroko aurrekontua dute lanek (Jaurkitzaren diru-laguntzagaz jardungo dute), eta ekainean edo uztailean burutzea aurreikusi dute. ■ I.E.

Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21

Konfiantzaren balioa

piso 

zure neurrira egindako konfiantzazko irtenbideak

KIRIKIÑO Erref. 002-895
• 160.000€ (26,6Mill.)



3 logela. Orientazio ona. Hipotekarako diru- laguntzarekin. 337 euro/hilean. KONTSULATU!

DURANGO Erref. 002-1032
• 162.000€ (26,9Mill.)



85m². Orientazio ona. Igogailua. AUKERA BARRI GARAJEA

SALDUTA

ELORRIO Eraikuntza berria



2 logelako etxebizitzak trastelekuarekin 177.000 eurotik hasita. 3 logelako etxebizitzak trastelekuarekin 227.500 eurotik hasita. 4 logelako etxebizitzak trastelekuarekin 283.000 eurotik hasita. Etxebizitzak terrazarekin 225.000 eurotik hasita. Garajeak aukeran. PREZIOAK PROMOTORAK ZUZENEAN EMANDA!

ZALDIBAR Erref. 002-1066
• 178.000€ (29,6Mill.)



Guztiz berriztatutako apartamentua. Egongela handia, logela eta komuna. BIKOTEENDAKO EGOKIA!

ABADIÑO Erref. 002-702
• 186.314€ (31Mill.)



7 urte dituen apartamentua. Logela bikoitza, 23m²-ko sukalde-jantokia. 7m²-ko balkoirako sarbidearekin. Garaje handia, trastelekua eta ganbara.

DURANGO Erref. 002-1021
• 186.314€ (31Mill.)



2 logela bikoitz, egongela handia, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztatua. EZIN EGOKIAGOA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

TABIRA Eraikuntza berria
• 192.000€ (31,9Mill.)



Logela bakarreko apartamentuak zonalde pribilegiatu batean. Kalitate handiko materialak. Ganbara.

DURANGO Erref. 002-1048
• 225.379€ (37,5Mill.)



Pisu altua igogailu eta ikuspegiekin. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. BISITATU EZAZU KONPROMISO BARIKI!

ELORRIO Erref. 002-1053
• 228.384€ (38Mill.)



76m². 3 logela bikoitz eta egongela handia. Berriztatua. Trastelekua. EZIN EGOKIAGOA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

MADALENOSTE Erref. 002-1086
• 222.374€ (37Mill.)



Guztiz berriztatua. 3 logela, berogailua eta leiho guztiak aldatuta. ETORRI ZURE ETXEA IZAN DAITEKEENA IKUSTERA!

SASIKOA Erref. 002-882
• 256.000€ (42,6Mill.)



15 urte dituen etxebizitza. Orientazio ona. 2 logela bikoitz eta egongela handia. Erdi berriztatua. ETORRI ZURE ETXE BERRIA IZAN DAITEKEENA IKUSTERA!

DURANGO Erref. 002-831
• 270.455€ (45Mill.)



Landako inguruan kokatua. 3 logela, komuna eta bainugela. Garajea eta ganbara. AUKERA ONA!

ASKATASUN ETOR. Erref. 002-1070
• 279.470€ (46,5Mill.)



8 urtetako etxebizitza. 2 logela bikoitz eta 2 komun. Garajea eta ganbara. PISO ON EN BARRI! EZ GALDU AUKERA!

MATXINESTARTA Erref. 002-392
• 299.905€ (49,9Mill.)



2 logela, 22 m²-ko egongela balkoirako sarbidearekin, zurezko leihoak kristal bikoitzarekin eta sukalde handia. Igogailua. Erdi berria. Garajea eta ganbara. ETOR ZAITEZ ETA EMAN ZURE ERITZIA!

DURANGO Erref. 002-1023
• 258.480€ (47,5Mill.)



120m². Guztiz berriztatua. 4 logela bikoitz eta 2 komun. ZORAGARRIA! ETORRI ZAITEZ IKUSTERA!

SAN IGNAZIO Erref. 002-949
• 288.486€ (48Mill.)



3 logela bikoitz eta 2 komun. Orientazio ona. Garajea eta trastelekua. Erdi berriztatua. EZ GALDU AUKERA HAU!

SAN IGNAZIO Erref. 002-999
• 330.557€ (55Mill.)



Zonalde lasaia. Pisu altua igogailuarekin 3 logela. Berriztatua. Orientazio ona. Balkoia. Garajea eta trastelekua. PISO ON-EN BAKARRIK!

MONTEBIDEO Erref. 002-910
• 366.617€ (61Mill.)




12 urteko etxebizitza. 3 logela bikoitz eta 2 komun. Ganbara eta garajea. BERRIA DIRUDI!

JUAN DE OLAZARAN Erref. 002-385
• 369.622€ (61,5Mill.)



Bisitegi-gunea. 3 logela, egurrezko leihoak kristal bikoitzarekin, garaje itxia eta ganbara. ZURE ETXEA IZAN DAITEKEEN PISU DOTOREA!

TABIRA Erref. 002-1041
• 411.693€ (68,5Mill.)



Duplexa. 10 urteko antzinatasuna. Orientazio ona eta argitsua. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia balkoiarekin eta sukaldea. Garajea eta trastelekua.



Konfiantzaren balioa
piso 
 .com

zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkalko
 lehen inmobiliaria sarea



BERRIZ

Udan ume sahararrak etxean hartzeko kanpaina martxan dago dagoeneko

‘Oporrak bakean’ kanpaina izena ematea gura duenak ekainera arte izango du aukera

Oporrak bakean, ume sahararrak udan hartzeko kanpaina martxan jarri du Berrizko Udalak. Umeak etxean hartuko dituzten familiek Udaleko Gizarte Ongizate Sailean eman beharko dute izena. Oraingoz lau familiak parte hartuko dute ekimenean, baina oraindik ekainera arte interesatuta daudenek badute izena emateko aukera.

Dagoeneko, kanpainaren berriematen duen eskuorria etxerik etxe banatu dute. Bi hilabete-ko egonaldia egingo dute Berrizen ume sahararrek. Etortzean harre-
ra beroa egiten diete, eta udara

begira pare bat irteera antolatzen du Udalak, familia guztiek hartu-eman estuago izateko. Egonaldi honek haurrei "bizi gehiago" ematen diela adierazi dute antolatzaileek. Bestalde, umeak etortzean beti azterketa medikoa egiten diete izan ditzaketen osasun arazoak konpontzeko.

Aurten, gainera, Zain taldeak ere parte hartu zuen kanpaina, joan zen astean kontzertu bat eskainiz, eta Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetako argazkien erakusketa ere izan zen kontzertuarekin batera. ■ G.A.

ZALDIBAR

Bi auto lapurtu eta trastelekuak behartu dituzte garaje batean

Zalduasolo etorbideko komunitateko garaje batean izan dira lapurretak, eguazten goizaldean

Zaldibarren erdiguneko garaje itxi batean lapurretak izan dira aste honetan. Bi turismo lapurtu dituzte, eta hainbat trastelekuak atek behartu zituzten, eguaztenean, goizaldeko 5:45ean Zalduasolo etorbideko komunitateko garaje batean, Ertzaintzak emandako datuen arabera.

Orain aste batzuk, beste garaje batean ere turismo bat lapurtu zuten

Pertsona batek eman zien gertatutakoaren abisua ertzainei. Eguazten goizean zonaldea inguratuta egon zen ertzainak miaketa lanetan zebiltzan bitartean. Oraingo ez da atxiloturik izan. Ertzaintzatik jakinarazi dutenez,

orain kaltetuen salaketak jasotzeko zain daude. Orduan ikusiko da zenbateko kalteak izan diren trasteleketuan.

Herritarrek azaldu dutenez, azken boladan hainbat lapurreta izan dira herrian, orain aste batzuk beste garaje batean beste turismo bat (BMW bat) lapurtu zuten, eta autoa gasolina barik gelditu zenean bertan behera utzi zuten.

Herritarrek diotenez, lapurretak tabernetan hasi ziren, makina txanponjaleak lapurtzen, eta orain, berriz, garajeetan dabiltzala azaldu dute. ■ G.A.

Pertsona batek eman zien gertatutakoaren berri ertzainei

IZURTZA

Arau ordezkatzailleak berrikusiko dituen taldearen hautatze-prozesua

Datozen urteetan herriko ordenamendua gidatuko duten Arau Subsidiarioen berrikuspena eta berri-
dazketa egiteko Udalak egin zuen deialdiari bost enpresak erantzun diotela jakinarazi dute Udalean. Datozen asteetan herriko arau ordezkatzailleak berrikusteko lana zer talderi esleitu erabaki beharko du Udalak, aurkeztutako proposamenak aztertzen jardun duen udal arkitektoak osatutako txostena eskuartearen dutela Udal Batzor-

dean lehenengo eta osoko bilkuran eztabaiduko dute ondoren.

Aurkeztu diren taldeak, gehienak jakintza-alor anitzekoak direla aurreratu digu Udal Gobernuak; soziologo, arkitekto eta abokatuak osatutako taldeak dira hautaketa prozesuan parte hartuko dutenak. Profesional talde bakoitzak proposatutako baldintza, epe eta aurrekontuak baloratu eta egokien irizten diotena aukeratuko dute udalbatzarrean. ■ I.E.

ELORRIO



Gernikako Arbola plaza Herriko Plaza deituko da hemendik aurrera.

Kaleen eta auzoen izendegia zuzendu eta eguneratu dute

Esaterako, Araunas auzoa Arauneta deituko da xafak aldatzen dituztenean

Udalak herriko kale izenen xafak berriak ipiniko ditu laster, eta horregaz batera kale eta auzo izendegia eguneratu eta onartu dute udalbatzarrean.

Auzoei dagokionez, izen bi moldatuko dituzte: Araunas auzoa Arauneta deituko da, eta Aidazu, berriz, Aidazua. Gainerakoek bere horretan jarraituko dute.

Kaleen artean hainbat aldaketa egongo da. Diego de Larreategi kalea Arteaga kantoia izatera pasatuko da. Horrela idatzita agertzen den 1902 eta 1903ko hainbat agiri aurkitu dituzte.

San Bizente kalea zena Elizalde deituko da aurrerantzean. Biz-

kaiko Aldundiko artxibategian XVII, XVIII eta XIX. mendeko errententzia asko daude izen horregaz.

Arrazoi berak daude Gernikako Arbola plaza Herriko Plaza izatera aldatzeko. Aldundiko hainbat eliza zein ondasun eta salerosketa agiritan —zaharrena 1544koa da— toki horri Herriko Plaza deitzen diote; “*en la plaza*

Herriko kaleetako xafak berriztatuko dituztenez, aldi berean, kaleen izendegia ere eguneratu egin dute

de la Villa de helorrio...” dio 1545eko salerosketa agiri batek.

Kapelastegi Arkitektoaren kalea Ibaikoa deituko da xafak berriak ipintzen dituztenean. ‘Ybaicua’ edo ‘Ybaicoa’ izena sarritan aurkitu daiteke agiritan, bai zonaldeari deitzeko bai ingurutik doan errekari deitzeko.

Dauden agiri guztiak aztertu ondoren erabaki dute Memaia kalea Urzabal izatera, Don Tello kalea Kanpokale izatera eta Amandarro Angio kalea Morgaondo izatera pasatzea. Beste izen batzuk laburtu egingo dituzte: Berriz-Olakueta (Berriz), Balendin Berrio-Otxoa (Berrio-Otxoa) eta Domingo de Lariz (Lariz), esaterako. ■ J.D.

gehiagorengana zabaltzea dago. Aurreko bi urteetan enpresen eremuan ere eragin gura izan zuten, baina egoera ekonomikoa proposa ez denez, oraingo, asmo hori atzeratu egin dute.

Bezeroengan ere eragin gura dute. Horretarako, merkatariekin hartu-emana euskaraz egiten dutenen artean zozketa bat egitea planteatu dute. Bezeroak bere datuak utziko lituzke kaxa batean, eta merkatarik bakoitzak emandako produktu sorta zozte egingo lukete denen artean.

Azkenik, Elorrioko Merkatarien Elkartek antolatutako ekin-tzetan euskararen erabilera zehazteko eta arautzeko plana diseinatu eta, ondoren, EMeri laguntza emango diote, hori garatu ahal izateko. ■ J.D.

Elorrioko Merkatarien Elkartearekin ere jardungo dute elkarlanean

Azken urte bietan jorratutako bideari jarraipena emanez, datozen urte bietan merkatarik, ostalari, zerbitzu enpresa eta elkartearen artean euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ardurari berrituko da Elhuyar Aholkularitzari esleitu dio Udalak. Orain arte eskainitako zerbitzuez gainera, ekimen berriak hasiko dituzte.

Laz hitzarmenean dauden merkatarik eta ostalariekin banan-banan egon ondoren, bezeroekin euskarazko hartu-emana errazteko ikastaroetan parte hartzea proposatu eta “harrera ona izan zuen”, Ainara Ibañez Elhuyar

Aholkularitzako teknikariaren esanetan. Bide horretan sakontzeko hiru bide zabaldu zituzten: AEKn urte osoko eskolak, ikastaro espezializatuak eta Berbalagun egitasmoa. Hemendik aurrera ere aukera horiek eskaintzen jarraitzeko asmoa daukate.

Orain arte legez, hitzarmenaren sinatzaileei aholkularitza eta itzulpengintza zerbitzuak eskainiko dizkiete eta urtean birritan martxan ipinitako ekintzen berri ematen duen buletina argitaratuko dute.

Asmo berrien artean hitzarmena merkatarik eta ostalari

OTXANDIO



Euskara eskoletan jende asko ibili izan da euskara ikasten eta hobetzen.

Astelehenean lehenengoz hasiko dute Berbalagun egitasmoa

14 lagunek eman dute izena, eta astean hiru bider elkartuko dira

Berbalagun egitasmoak euskara ikasleei euskaraz berba egiteko aukera eskaintzen die. Euskaldunberriak eta euskaldunzaharrak batzen ditu AEKren egitasmo horrek, eta tertulia gozoan euskarazko hiztegia aberasteko aukera eskaintzen die euskaldunberriei. Otxandion aurtentan antolatu dute lehenengoz ekimena, eta astelehenean batuko dira izena eman duten lagunak.

Euskara eskoletan jende asko zebilenez eta “euskara maila hobet-

tzeko prest jende dezente” zegoela ikusita, Euskara Batzordeak Berbalagun egitasmoa martxan ipintzea pentsatu zuen, Egoitz Unamuno euskara teknikariak azaldu duenez.

Taldeak eratu dituzte eta astelehenetan, barikuetan eta domeketan batuko dira Otxandioko berbalagunak

Guztira, 14 lagunek eman dute izena: lau euskaldunzaharrek eta 10 euskaldunberrik. Taldeak eratu dituzte eta astelehenetan, barikuetan eta domeketan batuko dira, maiatzean eta ekainean zehar. Ez dute gune finkorik; euskara praktikatu dute pasiatzen, kirola egiten zein bazkaritara batzen diren bitartean, besteak beste.

Hile bian proba moduan ibili eta gero, irailetik aurrera egitura egonkor batez jarraitzea dute helburu sustatzaileek. ■ J.D.

MALLABIA

Ekitaldiz gainezka dator Hamabostaldiko egitaraua

Herri-bazkaria antolatuko dute udal pilotalekuan Hamabostaldirako prestatutako egitarauari ekiteko

Herriko elkarteek eta Udalak elkar-lanean maiatzaren 15etik 29ra Hamabostaldiko egitaraua antolatu dute. Nesken saskibaloi partiduak jokatu dituzte datorren zapatuan, 11:00etan, eskolako frontoian. Ondoren, herri-bazkari autogestionatua prestatuko du Guraso Elkar-teak pilotalekuan. Domekan umeendako zine emanaldia antolatuko du Mallabia futbol taldeak, Kultur Etxean. Biharko Izarrak pilota txapelketaren zazpigarren edizioa 17:00etan jarriko dute martxan. Hurrengo partiduak maiatzaren 20an, 23an, 27an eta 29an jokatu dituzte. Tennis txapelketa maiatzaren 17an

antolatuko dute. Nesken pala partiduak maiatzaren 21erako prestatu dituzte, eta futbito txiki eta futbito gazte torneoak maiatzaren 22an eskolako frontoian izango dira.

Jasokunde abesbatzak kontzertua antolatuko du, maiatzaren 22an, Jasokundeko Andra Maria parrokiaren Mendibil eta Orio taldeekin. Nekazaritza Azoka maiatzaren 23an pilotalekuan atonduko dute. Zaldibarren futbol partidua jokatu dute Mallabiak eta Bastidak. Orraitio euskara elkarteak maiatzaren 15etik 25era erakusketa antolatuko du Liburutegian. ■ J.G.

MAÑARIA

Maiatzaren 10etik 20ra arte ‘Liburuak kalera’

Liburuak kalera izeneko ekimena ipiniko dute maiatzaren 10a eta 20a bitartean liburutegian martxan. Liburutegi barrura barik, baina, oraingoan kanpoaldera gonbidatu dituzte herritar guztiak: gogokoen duen parte hartuko du bakoitzak liburu bate-tik, eta liburutegiaren kanpoaldean ipiniko duten panelean eskegiko du: “hainbat libururen atalekin istorio berri bat sortzea” da beraz, proposamena.

Parte hartzen dutenen artean liburu sorta bi zozkatuko dituzte, maiatzaren 21ean. Herriko 3 eta 12 urte bitarteko umeak ere marrazkiak egitera eta Liburutegi kanpoaldean ipiniko duten panelean eskegitzeragonditatu dituzte. ■ I.E.

ABADIÑO

Aitatasunaren gaineko berbaldiak maiatzean

Emakunderen 2010eko Berdintasunerako Foroan parte hartuz, Abadiñoako Udalak aitatasunaren inguruko berbaldiak antolatuko ditu Txanporta kultur etxean. Programara joaten diren lagunek jarraibideak hartuko dituzte, seme-alabekin duten hartumana hobetzeko. Programa horren baitan bi hitzaldi burutuko dira; biak Imanol Pérez Alcón afektibitate hezitzailearen eskutik. Lehenengoan, hilaren 12an, “komunikazio zintzoa eta arduratsua” sortzen ikastea izango dute helburu. Bigarrenetan, hilaren 19an, esperientziak partekatzea. Lehen egunean amak ere joan ahalko dira. Bigarrenetarako izena eman behar da.

BERRIZ

Uztaileko udalekuetarako begirale eta koordinatzaile bila

Berrizko Udalak uztailearen 5etik 23ra udaleku irekiak antolatuko ditu aurtentan, haur eta gazteen aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko eta indartzeko. Horretarako, begiraleak eta koordinatzaileak kontratatuko ditu eta izena emateko deialdia zabaldu dute, hilaren 14a arte. Udalera eraman behar dira NAN agiria, ikasketen ziurtagiria, euskara maila (EGA, 2/3 HE, HEO...) eta ikasketen ziurtagiria eta Udaletxean jaso beharreko eskabide-orria. Begirale ikasketa edo titulua behar da, 18 urtetik gorakoa izateaz gain. Kontutan hartuko da berriztarra izatea eta arloan esperientzia izatea.

IURRETA

Domekan izango dute segida Goiuriko Santakurutz jaiek



Iñaki Irzabal

Joan zen astelehenean, maiatzaren 3an, hasi ziren Goiuriko Santakurutz jaiek. Eguerdian mezara hurreratu ziren auzotarrak, eta horren ondoren luntxa izan zuten aukeran, irudietan ikusi daitekeenez. Jatekorik eta edatekorik ez zen falta elizpean.

Domeka honetan ere mezagaz zabalduko dute eguna, goizeko 11:30ean. Iurretako auzotako ohiturari jarraituz, meza amaitu eta gero dantzarien saioa izango da ikusgai. Ospakizunak ez dira, baina, goizean bakarrik egingo. Izan ere, arratsaldean herri-kirolen tartea izango da, idi-proben saioagaz. Arratsaldeko 18:00etan emango zaie hasiera probei.

ZALDIBAR

Udako Sanandresetako kartel lehiaketa, hilaren 21era arte

Nagusien eta umeen mailatan banatuko da lehiaketa. Gaiari dagokionez norberak aukeratu dezake, baina, hori bai, testuan ‘Zaldibar, 2010eko Udako San Andres jaiek’ idatzi behar da. Nagusien lehiaketan 70x50 zm-ko lanak aurkeztu behar dira euskarri gogor baten gainean; umeenean, 65x50 zm-koa. Maiatzaren 21a da aurkezteko azken eguna.

Sariei dagokionez, nagusietan kartel irabazleak 250 euro jasoko ditu. Umeen lehiaketan, ehun euroko balioa duen sari berezia emango dute.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

katerin ardoak

inaki uribe

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

IRITZIA

Gutunak

Transgenikoa ez den bizitza baten alde

Urteak dira agrokimikaren eta "elikaduraren" multinazional handiek heltzen zaizkigun elikadura eta lurretan transgenikoak sartzen ari direla. Gaur egun, agrokimikaren, bioteknologiaren eta hazi eta agroelikaduraren merkatu guztiaren onura guztiak enpresa multinazional gutxi batzuentzat dira (Monsanto, Basf, Syngenta, Dupont, Bayer eta Novartis, hain zuzen ere), hauen banaketa eta elikadura hauen kostua kontrolatzen dutelarik, kontrolatzeko beste estrategia bat bihurtzeko arriskuarekin.

GEOak (Genetikoki Eraldatutako Organismoak) gaitzik ez duten elikagaiak direla esaten digute; munduko gosea kenduko duen erremedio baten moduan eta ingurumenarekiko arazoaren irtenbide bezala saltzen dizkigute, eta baita elikagai sendatzaile aberastuak direlakoan ere.

Baina "bertute" horiek izanda ere, ez dituzte etiketatzen elikagai horiek erosterakoan, ezin dugulako erabaki... Onegiak ez direlako edo jadanik gertatzen ari diren mehatxuen arduradunak direlako izan daiteke. Horrez gain, beste hainbat arrisku dituzte:

- Nekazariak enpresekin kontratuak egin behar dituzte, non ezin dituzten beraien haziak gorde, eta enpresen biozidak erostera behartuta daude, nekazarien dependentzia ekartzen duelarik.

- Latifundioak egiteko beharra ekarriko du, honekin batera, inbertsio handiagoak eta baita teknologia berriak. Honek luraren industrializazioa ekartzen du, nekazari txikiak alde batera uzten dituelarik, nazio txiroenetan, batik bat.

- Errotaziorik ez dagoenez, nekazal elikagaien salmenten areagotzea, monokultibo handiak eta espezie "super erresistenteen" sorkuntza. Basaloren hauen aldakien gurutzatzeak, herbiziden eta intsektizidengan super erresistenteak diren landareen sorkuntzak ekarri ditzake (sartzen zazkien geneak horretarako prestatuta baitaude). Honek pestizida gehiago behar izatea ekarriko du, plaga inbasiboen generazio baten arriskua erreprezentatzen duen heinean, inguruari kalte egingo diolarik erregulazio naturalik ez baitago.

- Espezie autoktonoak desagertzea ekarriko du. Honek naturarekin lanean egon den ehunka urteko beharra galaraztea ekarriko du, zentzu horretan kultura galduko delarik. Enpresa gutxi batzuek elikaduraren eta autonomia popularrarekiko kontrola ekarriko du honek.

- Gizakien eta animalien osasunean izango dituen eraginak argitzen dituen frogarik ez dago.

- Nekazal lurren aniztasunaren kutsadura ekarriko du, eta honek atzera pausurik ez du, aniztasun genetiko eta kulturala ezabatuz.

Oinarritzko ideia batetik hasia ezinbestekoa ikusten dugu, ez delako arazo tekniko bat. Gizakiaren harremanak eta naturarekiko harremanak akatuko dituen ekintza bat delako; hau da, mundua ikusteko era bat delako. Marjinazioa eta pobrezia ekartzen dituen sistema berbera delako; baita diru eta berehalakoarengatik kulturak eta espazioak edota lekuak suntsitzen dituen ere. Eta oraingoan transgenikoak ekarri dituen sistema beraren aurrean gaude. Baina ez gaude sistema garaiezin baten aurrean, bere hausturak ere baditu, eta horregatik gaitzitzeko aukerak ditugu; hori bai, gure bizikera hobetu nahi badugu, baita gure elikadurarako burujabetza eta gure aukeratzeko gaitasuna lortu ere:

- Ez dezagun gure lurretan elikadura transgenikorik landatu; gure ezagun eta auzokideei hau guztia azaltzea ere beharrezko ikusten dugu, berdin egin dezaten.

- Produktuak etiketatuta ekartzea exijitu dezagun, horrela baita GEOen kultiboetatik datozen elikadurak saihesteko modu

bakarra. Gehienak ez daude etiketatuta, ordea, baina Interneten informatu gaitezke.

- Bertako nekazariak eta konfiantzazko pertsonak erosi diezaiegun bitartekariak saihestuz. Horrela, gure harremanak hobetuko dira eta ez enpresa multinazional gutxi batzuk.

Transgenikoak bizitza eta lurraren artifizializazioaren adierazgarri handienetarikoa dira. Utzi diezaiegun lurra diru multzo bat bezala begiratzeari eta den bezala defenda dezagun, hau errespetatzea ikastea baita.

Ez dira transgenikoak soilik, euren mundua ulertzeko era bat baizik. Amalurra defendatu!

Durangaldeko Asanblada Antidesarrollista

Maiatzak 15, Iruñea: Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidearen alde

Legegintzaldia hasi berri zela Gobernuak Euskarabidea sortu zuen, euskararen hizkuntza politika aldekoagoa egingen zuela irudikatu nahian. Euskararen alde lanean dihardugun eragile guztiok, alde edo moldez harremana eduki dugu alderdi politiko guzti-guztiekin. Esaterako, Topagunekook, azken bi urteetan hogeitaz bilerak baino gehiago egin ditugu guztiekin. Behin eta berriz joan gara jarrera ezin eraikitzaileagoarekin: goazen gure lana eskaintzera, goazen gure proposamenak egitera, goazen negoziatzera... herri ekimena eta administrazioa elkarlanean aritzearen aldekoak gara-eta.

Denbora pasa ahal, Gobernuaren jokaera agerian geratu da: Euskarabidea sortzea distrakzio maniobra izan zen, betikoan segitzeko: euskaldunoi egurra. Jakina, amorrua metatzen joan da denbora honetan guztietan.

Manifestazioa, besteak beste, honetarako antolatu dugu: Gobernuari eta sostengatzen dutenei, aski dela adierazteko; asko garela orain eta etorkizunean Nafarroan euskaraz bizi nahi dugunak erakusteko; euskaldunon kontra hartzen dituzten erabakiekin gure amorrua kanporatzeko; bat egiten dakigula eta antolakuntzarako gaitasuna dugula frogatzeko; eta, noski, alderdi politiko eta bestelako eragileen agendan eragiteko. Izan ere, Parlamentuan eta udaletan onartzen dira lege, arau eta aurrekontuak. Premiazkoa da berdintasunera eramango gaituzten legeak onartzea, eta euskara sustatzeko behar besteko baliabide ekonomikoak jartzea. Horren alde lehentasunez lan egitea eskatzen diet euskararen alde daudela dioten alderdiei, beharko dituzten aliatuekin negoziatu beharreko guztia negoziatu dezaten.

Izan ere, aniztasuna eta pluralismoaren kontrako diskriminazioa da nafar herritarrek euskararen garapenaren alde egiten dugunean maizegi pairatzen duguna. Zer da, bestela, Artaxoako gurasoek pairatzen dutena euren seme-alabak euskarazko ereduetan matrikulatu nahi dituztenean?

Pertsonon eskubideez ari gara, politikaren aurretik dauden eskubideez. Pertsonak gara betebeharrak eta eskubideak ditugunak, pertsonak gara diskriminazioa jasotzen dugunak. Nafarrak gara, betebeharrak berdinak izanik, Leitzan espainola ikasteko betebeharrak dugunok eta Mendigorrian euskaraz ikasteko eskubiderik ez dugunok.

Gutxieneko sentsibilitate kulturala izatea eta eskubide berdintasunean sinestea, hori da deialdiarekin bat egiteko nahiakoa arrazoi. Gonbidatuta zaude.

Oskar Zapata - Topagunea

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker Abertzalea

Tunel ilunak

Aste honetan pozez agertu dira teknokratak, Zornotzako AHTko bi tunelen zultaze-lanak bukatu dituztelako. Honezkero zati horretan beste bi tunel eta bost biaduktu baino ez dira falta. Gero, 116.119 arbola sartu eta honela Zornotza-Zornotza zatia bukatuko da.

Berri (txar) hau abenduaren 28an kaleratuz gero, edozeinek inozentatatzat hartuko luke, Zornotzatik Zornotzara abiadura handiz joateko 4 tunel eta 5 biaduktu pasa behar izatea, nekez hartu daiteke-eta serio.

Honekin batera, euren saialkerari meritua emateko asmoz, edo, Gipuzkoako zatia dezentegarestitu dela zabaldu dute bere bultzatzaileek, izan ere, kilometro 24 milioi euro aurreikusita dituen astakeria esfortzu handiko inbertsioa dela diote.

Eta hori, zertarako? Bilbotik Gasteizera eta Donostiara 30 minutuan joateko. Baina ez hori bakarrik. Obra honek gure herria egituratuko ei duenez, Gasteiztik Madrilera joateko ordu bi eta erdi baino ez dugu behar izango. Bietako bat: edo batzuek gure herria Madrilera handitu dute guri ezer esan barik, edo gure herria egituratzea Espainiagaz lotzea da.

Bitartean, bertako 15 udalek hiltegi berri bat egiteko 8,5 milioi euroko inbertsioa ateratzeko bidean oztopoak baino ez ditugu topatzen. Bertako baserriarrei zerbitzua emateko, gure ekonomia txikia eta elikadura subiranotasuna sustatu nahian, AHTaren 300 metroko beste balio duena egin nahian gabilta, baina dena tunel bihurtzen digute. Erralde moduko proiektuak dira benetan herria egiten dutenak, baina okela ahu-la omen da. Badira, zoritxarrez, gure herria egituratzeko porlana nahiago dutenak.

Erralde hiltegiaren moduko proiektuak dira benetan herria egiten dutenak



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko maiatzaren 7a - 9. urtea - 372 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

BERBAZ >

“Eskubideen urraketa zelan bizi dugun adierazteko lekua da Adierazi EH”

Zapatuan Berrizko Kultur Etxean egingo duten ekitaldira joateko deia egin du Adierazi EH plataformak

Eskubide zibil eta politikoen urraketaurrean norberak sentitzen duena adierazteko sortu dute Adierazi EH plataforma. Bilboko Euskaldunan egin zuten lehenengo ekitaldia, musika, antzerkia eta hitza batzen dituen ikuskitunagaz. Orain eskualdeka zabalitzen dabilta ekimena. Zapatuan Berrizen jarri dute hitzordua.

Zer da Adierazi EH?

Julen Arzuaga: Adierazi EH da Adierazi Ekimen Herritarra, eta baita Adierazi Euskal Herria ere. Joko hori egin dugu esateko herri honetan adierazpen askatasuna falta dela eta horri buelta eman nahi diogula. Adierazpen askatasuna, eskubide politikoak, manifestatzeko eskubidea, bozkatzekoa... Eskubide askoren urraketa dago, eta eskubide horiek berreskuratu gura ditugu.

Enrike Alaña: Urtarrilaren 30ean Euskaldunan ekitaldi bat egin zen Adierazi EH aurkezteko. Antzerkia, musika, hitza... zeukan, eta ikuskitun oso polita izan zen, eta Berrizkoa antzeko ikuskizuna izango da.

Karmen Amezua: Bai, Kukubiltxok egingo du Berrizko ekitaldi kulturala ere. Baina, zergatik Berrizen? Argi dago horrelako ekitaldi baten aurkezpena hiriburuan egin behar dela, jende asko batzeko. Baina badago jende asko Bilbora ez zena joan, eta eskubide zibil eta politikoen alde dagoena. Eskualdeka egitea horregatik da oso inportantea. Berrizen agenda kultural nahiko potentea dugu orain, eta herri aproposa izan daiteke Durangaldean.

Kultur ikuskizunean hitzak bere lekua izango duela nabarmendu duzue...

J.A.: Euskaldunan aniztasun ikuspegi bat ematen ahalegindu ginen. Hainbat alderdi politiko, sindikatu, eragile sozial... bertan zeuden, urratzen diren eskubide horiek aldarrikatzen. Berrizen ere, ekitaldi kulturalaz gainera, hitzarentzat tarte bat ere egongo da. Abaniko politiko, sindikal eta sozial zabal horretatik hainbat pertsona etorriko da, eta eskubide urraketen aurrean eurak zelan sentitzen diren adierazteko mikrofonoa zabalik izango dute.

E.A.: Hemen aldarrikatzen dena da eskubide zibil eta politikoak urratzen direla. Baina hori ez dugu guk bakarrik esaten. NBEk eta hainbat nazioarteko erakundek giza eskubideen aitortpenak egin dituzte, eta guk deklarazio horietan agertzen



“Giza eskubideen adierazpenetan dagoena bermatzea da eskatzen duguna”

diren eskubide horiek bermatzea baino ez dugu eskatzen.

J.A.: Badago jendea zuzenean ez duena sentitu eskubide zibil eta politikoen urraketa, baina urraketa hori nonahi ikusten duena. Demokraziaren zentzua, askatasunaren balioa, justizia... Kontzeptu horiek hankamotz uzten dituen ibilbide bat egon da, eta herritarrak kezkatuta daude horregaz. Adierazteko aukera

“Zergatik ez gara kapaz batzen gaituzten elementuekin benetan bat egiteko?”

bat eskaintzen dugu ekimen honegaz. Norbera adierazteko gune zabal eta anitza izatea gura dugu.

Zelan bizi dituzue zuek eskubide urraketa horiek?

E.A.: Ni abokatua naiz lanbidez, eta Herri Batasunaren eta Batasunaren ilegalizazio operazioan atxilotu ninduten. HBrentzat aholkulari lana egiteagatik kartzelaratu gintuzten; uste dut 11 lagun sartu gintuztela

**Enrike Alaña •
Karmen Amezua •
Julen Arzuaga •**

Adierazi EH
ekimeneko kideak

kartzelan. Urtebete eta erdi egon ginen, eta orain epaiketaren zain gaude. Zortzi urte baino gehiago pasatu dira, eta orain egin dute eskaria; 8 eta 12 urte bitarteko kartzela zigorrak eskatzen dituzte, eta orain ikusiko dugu epaiketa datak noiz jartzen dituzten.

J.A.: Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren kontrako auzian egon nintzen ni. Ni ere abokatu lana egiten nengibilen, presoekin. Egun batetik bestera, egiten genuen lana ilegalizat jo zuten. Epaiketan 27 lagun egon ginen, eta 19 kartzelan daude. Ni absolbituta banago ere, sentitzen dut hor injustizia itzela egin zela. Hori adierazteko leku bat behar dut.

K.A.: Ni zinegotzia naiz Berrizko Udalean. ANVegaz aurkeztu nintzen, eta ilegalizatu egin zuten. Ondorioz, beldurrez ez dakit, baina kezkatuta bizi naiz. Berba egiterakoan ez dut lasai egiten. Nire lana publikoa da, eta ikusita jendea hitz egiteagatik dagoela kartzelan, kezka horregaz bizi naiz. Horrez gainera, antolakuntza barik gaude, azpiegitura barik. Ezin gara batu, ilegalak gare-lako. Ematen du Udalean jarraitzen dugula eta ez dela ezer gertatzen, baina gure eskubideak guztiz urratuta daude.

J.A.: Ematen du gero eta gaitzagoa dela plaza publikoan hitz egitea, biltzea, manifestatzea... eta hauek oinarritzko balore batzuk dira. Adierazi EHgaz errekuiperatu egin gura ditugu. Zergatik ez gara gai batzen gaituzten elementuekin benetan bat egiteko? Gure artean desadostasunak egongo dira, baina, behintzat, ados egongo gara, nahiz eta desadostasunak izan, denok dugula adierazteko eskubidea. ■A.U.

EKONOMIA[>]

>ABADIÑO

El Material Aislante Abadiño-ko enpresak 18 behargin kaleratu gura dituela salatu du ELAK: "Zuzendaritzak bideragarritasun plana aurkeztu dio Enpresa Batzordeari, eta planaren ondorioz 18 behargin kaleratu gura dituzte". Kaleratzeez gainera, zuzendaritzak soldatak %10 jaitsi gura duela adierazi du sindikatuak. Enpresak erakuntzako hodiak ekoizten ditu, eta ELAK dioenez, "enpresak kaleratze-ko duen asmoa gauzatuz gero, plantillan 41 behargin geratuko lirateke". Enpresaren asmoak ikusita, ELAKo Atal Sindikalak enpresako zuzendaritzari "proposamena erretiratzeko eta lanpostu guztien egonkortasuna ziurtatzen ahalegintzeko" eskatu dio.

ELA sindikatuak enpresari "proposamena erretiratzeko" eskaria egin dio

Sindikatuak azaldu duenez, "EMAKo Zuzendaritzak doikuntza-neurriak Elkargiren babes ekonomikoa daukala dio". Beraz, ELAK salatzen duenez, "Elkargi moduko erakundeek, lanpostuak finkatzeko proiektu emankorrak bultzatu beharrean, kaleratzeak eta lan-prekarietatea areagotzea sustatzen ari dira".

>DURANGALDEA

Eskualdean langabeziak behera egin du apirilean

Durangaldean langabeziak behera egin du apirilean, INEM-ek jasotako datuen arabera, 3.292 pertsona egon ziren lanik barik apirilean; hau da, biztanleria aktiboaren %13,17. Martxoan, berriz, 3.408 pertsona zeuden INEMen izena emanda. Hau da, 116 beharginek topatu zuten lana apirilean.

Eskualdean beheranzko joera martxoan hasi zen, otsailean baino 22 langabetu gutxiagok. Aurtan, orain arte, langabetu gehien

EMAK 18 behargin kaleratu gura dituela salatu du ELAK

El Material Aislantek kaleratzeez gainera soldatak murriztu gura dituela dio ELAK



El Material Aislante enpresako zuzendaritzak bideragarritasun plana aurkeztu du.

El Material Aislanten LAB sindikatuak du gehiengo sindikala, bi delegatugaz, eta LABek azaldu duenez, bileretan dabilta "egoera eztabaidatzen". Datorren astean "beste

LABek azaldu duenez, bilerak egiten dihardute, "egoera eztabaidatzen"

te batzar bat" dutela aipatu du LABeko ordezkariak, eta "ez daki argi enpresak zer jarrera hartuko duen". Bilera ondoren erabakiko du sindikatuak zer egin. ■ G.A.

>ABADIÑO

Beharginek "mobilizazioak gogortu" dituzte Inyectametalen

Inyectametalen Enpresa Komiteak mobilizazioak egingo ditu, datorren egunean, enpresa aurrean

Inyectametalen Enpresa Komiteak "mobilizazioak gogortzea" erabaki zuen eguaztenean egingako batzarrean, "lan hitzarmenaren negoziazioa geldirik dagoelako eta enpresak mugimendurik egiten ez duelako".

Komiteak dioenez, "lan hitzarmenaren inguruko negoziazioa geldi dago"

Enpresa Komiteko presidentek azaldu duenez, datorren egunean, goizeko 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, enpresa aurrean pankartekin mobilizatu eta fengien nabe batetik bestera joan-etorria geldituko dute, enpresaren aldetik "erantzunen bat jasotzeko asmoz". Gainera, kartel gehiago ipiniko dituzte eremua zabalduz.

Enpresa Komiteko presidentea asteartean bildu zen azkenean zuzendaritzagaz, baina "ordu bete baino gehiago bilduta" egon ondoren eta enpresak "ezer ez duela mugituko" esan ondoren hartu ei dute "mobilizazioak indartzeko" erabakia. Enpresaren aldetik erantzunik jasotzen ez badute, Komiteko presidentek azaldu duenez, "lanuzteekin hasatea litzateke hurrengo pausua".

Urtariletik dabilta lan hitzarmenaren inguruko akordioa lortu ezinik. Langileek eskara ekonomikoak egiten dituzte, batik bat. Orain hiru aste hasiziren mobilizazioekin. ■ G.A.

Enpresa Komiteak azaldu duenez, "lanuzteekin hastea litzateke hurrengo pausua"

■kolaborazinoa



Mauricio García
UGT sindikatua

Eskubide murrizketarik ez

Ia bi urte daramatzagu egoera zailean, eta egoera zail hau eragin duten finantzeko espekulazioak eta burbuila inmobiliarioak euren kontu eta poltsikoak berdindu dituztenean, guztiok jarritako diruarekin berdindu ere, ez dute eskatu eta ukatu besterik egiten. Hainbesteko gosea dute, ze ekin eta ekin ari dira presioa eginez, nazio zein mundu mailan, Gobernuak langileen eskubideak eta babes soziala zaintzeko mantenduriko norabidea aldatu dezan.

Kapitalismo zaharkitu hori ez da ohartu egoera hau gaindituta "txipa" aldatu beharko dugula, bestelako produkzio- eta ekonomia-sistema batera joz. 1992-93ko krisi gogorrek akats berberak ari gara errepikatzen.

Instituzio eta erakunde horien eraso eta presioak etengabekoak izan dira, eta egoera honetan zentzu apur bat jartzen ari diren bakarrak sindikatuak gara; erantzukizun, sen on, zuhurtzia gordez, proposamenak eta alternatibak aurkeztuz Patronalaren eskaerei. Eta gizartearen babes jasotzen ari gara. Baina, ez dezagun gure burua engainatu, sindikatuak langileria eta oro har gizartea defendatzeko gaude, eta erakunde edo instituzioen batek adostu gabeko neurriak hartzen baditu, aurrez aurre izango gaitu. UGT beti izan da sindikatu arduratsua; lehenengo elkarriketa, negoziazioa, adostasuna gizarte elkarriketa, eta gero, tresna horiekin gure asmoak gauzatu ez baditugu, konfrontazioa, mobilizazioa eta greba.

Hemen, Euskadin, handicap bat gehiago dauka: sindikatuen zati batek ez du elkarriketa sozial hori nahi, gauzak lortzen ari garen arren, eta nahiago dute konfrontazioa, ez bakarrik gobernu eta instituzioekin; tresna horiek defendatzen ditugun sindikatuekin ere bai. Nahiago dute kritikatu eta dena gaizki dagoela esatea, eseri eta bideak eztabaidatu baino behar diren erabakiak hartzeko. Krisitik atera eta langileen eskubideak defendatzea zaila izango da jarrera horiekin.

*Erredakzioan itzulia

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]



Argazkia: Nagore Legarreta

MUSIKA > KONTZERTUA

Anari, Berrizen gaur, 'Irla izan' diskoa aurkezten

Eguraldi lagun izanez gero, gaur bertan berreskuratu-ko dituzte Berrizen Udaletxeko lorategiko kultur ekitaldiak. Maiatzaren 7an, gaur, 22:00etan da Berrizko kaleko kultur ekitaldien egitarauan jasotako lehenengo emanaldia: iazko urte amaieran Durangoko Liburu eta Disko Azokan kaleratu zuen *Irla izan* seigarren diskoa aurkeztera dator Anari abeslari azkoitiarra.

Asteon ezustekoan bueltatu zaizkigun euriak eta hotzak kalean egiteko aurreikusita dagoen emanaldia deseroso egingo balute, Kultur Etxe barruan eskainiko ditu Anarik "irlaren irudi eta kontzeptutik tiraka sortutako doinu eta letrak"; diskoko kantak Durango-

ko Plateruenean aurkeztu zitue- nean abeslariaren berbetan jaso genuenez, irla batek dakarren bakardadearen ideiatik —baina ez bakardadeari buruz sarritan izaten dugun ideia negatibotik— sortutakoak dira zuzenean joko dituen kantak. Anarik idatzitako letrak eta Anarik taldekideekin sorturiko doinu ederrak zuzenean entzuteko aukera da Berrizen gaur izango duguna.

Lorategiko kontzertuen gaine- rako hitzorduak ere zabaldu ditu, bestalde, Berrizko Udaleko Kultu- ra Sailak: besteak beste, ekainaren 11n Anido gitarra laukotea eta ekainaren 18an Iñaki Plaza & Jon Garmendia izango ditugu Berri- zen entzungai. ■ I.E.

Eguraldiak laguntzen badu, Udaletxeko lorategian eskainiko du Anarik emanaldia

12 Durangaldeko 6 bertsolari finalistak

Joan zen barikuko Oromiñoko bigarren aurreaioan Eneko Abasolok batu zuen puntu gehien. Badakigu maiatzaren 29ko finalean nortzuek jardungo duten.



13

Epaimahaiaren saria Zain-entzat

Euskadi Gaztea irratia- ren Maketa Lehiaketaren epaimahaiaren saria eskuratu du Berrizko Zain taldeak; harrituta eta oso pozik hartu dute.

POESIA > ERREZITALDIA

Pentsamenduaren Poesiaren bigarren saioa, gaur, Durangon

Paul Celan eta Coleridge poeta eta pentsalariei buruzko berbaldi bi eta hiruna poetaren errezitaldiak ekarri ditu jardunaldiak hirugarrenez Museora

Atzo, maiatzaren 6an, izan zen Pentsamenduaren Poesia jardunaldiaren III. edizioaren lehenengo hitzordua, eta *Paul Celan*: “*Verdad dice, quien dice sombra*” berbaldia eskaini zuen Francisco Jarauta unibertsitateko irakasle eta filosofoak Durangoko Museoan. Berbaldiaren ondoren, biolinaren doinuak lagundutako poesia errezitaldia eskaini zuten Angel Erro, Itziar Minguez eta Karmele Igartu poetek.

Gabriel Insausti irakasle eta poetaren berbaldia, gaur, 19:00etan

Maiatzaren 7an, gaur, da jardunaldiaren bigarren emanaldia, eta 19:00etan hasita, *La imagen y la idea: la aventura doble de Coleridge* berbaldia eskainiko du Gabriel Insausti irakasle eta poeta donostiarrak, Ingalaterrako erromantizismoaren sortzaileetako bat izan zen Coleridge-ren obrari buruz. Berbaldiaren ondoren, berriz, Leire Bilbao, Hasier Larretxea eta Karlos Linazasoro poeten emanaldia dago aurreikusita.

Pentsamenduaren, arrazoi-menaren arabera sortu eta ordenatutako berbak poeta eta pentsalarien ahotik zuzenean jasotzeko aukera da atzo eta gaur duguna.

Leire Bilbao, Hasier Larretxea eta Karlos Linazasoro gaur



Chantal Maillard orain urte bi Museoan errezitatzen. J.F.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

kronika

Abarkas jaun ta jabe

Oromiñoko saioa ere gustu ona itxita joan da. Beharbada, ez hain ona noizbehinka saio on bat entzuterat joaten direnentzat, baina bai bertsolaritzaren munduaz arduratzen garenontzat.

Bertsolari bakotxak berari zegokona emon eban saioan

Saio aurretik sei bertsolaritik hiru ziren neurria emoteko gai, jentearen ustez, eta beste hiru sorpresa-usteko. Inork ez eban kale egin. Bakotxak berari zegokona emon eban.



A. Ibaibarriaga

GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza Bertsolaria

Urruti zaude eta zaila da

“*Urruti zaude eta zaila da/ ni zugana iristia/ honen beste nahi dizun batentzat/ zer bizimodu tristia!*”.

Holantxe hasten zen Pedro Mari Otañoren bertso ezagunenetariko bat. Maiatzaren zazpian betetzen da, hain zuzen be, bertsolari zizurkildarra hil zeneko ehungarren urteurrena. Hamazortzi urtetxogaz, Ameriketara egin behar izan eban ihes; gerra karlista gori-gori egonik, Euskal Herria ez zen liberal baten tzako lekuri segurua. Itsasoaz bestaldera urte batzuk igarota, berriz sorterrira etorri arren, laster joan zen Argentinara itzulerarik bako bidaian.

Urte luze horreetan, hainbat bertso-sorta idatzi zituen; nostalgiaz, indarrez eta herriminez jantziak.

Euskal Herriarekiko zeukan sentimendua hain zen sakona ze, ezinezko maitasun bat balitz legez irudikatu eban sarritan.

Handik mende batera zutabe hau idatzi ahala, kon turatu naz badagozela tira egin arren alkarrengandik bereizi ezin doguzen berbak: Euskal Herria eta gori-gori, ihesa eta herrimina, ezinezkoa eta maitasuna.

Otañok kantatuak guganaino iritsi badira, non amaituko ete dabe gure hitzek? Oraingo, bukatu daigun bertsoa: “*Alaipide bat bakarria daukat/ ametsetan sinistia/ zu ikusteko noiz nahi aski det/ nere begiak ixtia!*”.

Kristina Mardaras

Abarkasek eta Gorkak entrenamentu onak egin ditueela demonstratu eban, gogor eta ziur kantatuz ondo antolatutako bertsoak. Gorkak bikain bete eban ordeko lana. Abarkasek erakutsi eban txapela irabazi leikela. Lepotxok ibilbide laburra dauka egin, baina gaia badauka bai, eta hori ona da.

Giro autentikoa, naturala eta nasaia izan zen saioan

Salaberriak betiko zirikadak jaurti zituen, arin eta bizi


Salaberriak betiko zirikadak jaurti zituen, arin eta bizi. Honi nabaritu neutsan entrenamentu falta. Saiatu, Ander, Iurretako Txapelketa be jokatzeko dago eta. Urkiaga polito, denbora larregi galdu barik eta ideia fresko batzuk ateraz. Eta Aldazabal

azken, baina txarto egin barik. Bertsotan hastea kosta jakon, baina, nasai txikito, hortik pasatu ez den bertsolaririk ez dago.

Saio bat nabarmentzekotan Lepotxo eta Gorkaren 8ko nagusia litzateke. Gozo erabili eban bikoteen arteko erabaki latza. 8ko txikian Gorka eta Abaskasen baserritar eta kaletar jubila tuaren artekoa izan zen. Puntuetan, oster, Salaberria eta Urkiagarena. Kartzelan, berriz, Abarkasena eta Lepotxorenagaz geratzen naz. Maisulanean biak.

Giroari buruz, zer? Portatu ziren San Markoko Jai Batzordekoak. Goserikez ginen gelditu eta barrako zerbitzua ona. Giro naturala, autentikoa, nasaia, saioan sartuta batek baino gehiagok kantatzen zituen bertso amaierak bertsolariekin batera. Ez da halan, Serafin, Maritxu, Rafa eta konpainia? Eskerrik asko. Ea maiatzaren 29an Berrizko frontoian elkar ikusten dogun!

Eñaut eta Gorkaren 8ko nagusiko lana nabarmenduko neuke



anboto



deko2010



KOART 905

Sukaldeak • Bainugelak • Horma-armairuak

Tel. / Faxe: 94 682 68 79
Eitua industrialdea, 9 - 6 behea
48240 BERRIZ



Zatoz gure etxea ikustera

Diseinua gure premien zerbitzura

Detaile txiki batzuk aldatuta etxea itxuraldatu dezakegu. Hormetako kolorea aldatzea nahikoa da

Proposamen guztien artean aukeratu, eta gogoan izan etxea gustura egoteko espazioa izatea dela asmoa

Dekorazio gehigarri honetan diseinu joeren inguruan dihardugu. Etxeko giroa aldatzeko, baina, ez da berrizte handirik egin behar. Sarritan, detaile txiki batzuk aldatuta beste espazio batean gaudela dirudi. Gehiegi gastatu barik ere, egongela edo logela aldatu gura duzula? Pintura eta papera hartu eta arratsalde batean horrei kolorea emanda eginda dago. Lan horri ekin aurretik altzariak eta lurra ondo babestea komeni da. Koloreak lasai aukeratu, leku bakoitzari dagokion tonua emateko. Paperean ere aukera zabala dago. Inguruko altzariekin ondo gelditzen dena aukeratu, eta aurrera! Altzariak lekuz aldatzea ere beste aukera bat izan daiteke, ezer pintatzen hasi aurretik.

Eraberritzea

Etxean obretan hasten garenean erabaki asko hartu beharra dago. Bainugeletan zer jarri, egongelan espazioa zelan aprobetxatu, sukaldea zelan antolatu, logela zelan diseinatu, argiteria, gortinak etab. Gustu guztietarako aukerak dauden arren, diseinu arloko azken joerak jaso ditugu. Proposamen guztien artean baten bat gogoko izango duzulakoan, gogoan izan etxea gustura egoteko espazioa izatea dela kontua.



Pizeli

gune antolatuak...
...bizileku egokiak



Arriluzea 3, Durango
tel. 94 620 26 26 www.pizeli.com





Hankak luzatuz atsedeen hartzeko

Chaise longue sofa etzangarriak geroago eta sarriago ikusten dira



Chaise longue izeneko sofak gaur egungo egongelen egitura standarrean geroago eta txertatuago daude. Gorputz osoa sofaren gainean pausatzeko prestatuta daude: atzerantz etzangarriak dira eta, aurrerantz hankak bertara jaso daitezke, deskanstuan. Arrazoi horiengatik geroago eta etxe gehiagotan ikusten dira mota horretako sofak.

Chaise longuearen osagarri moduan sofa txikiak ipini daitezke; baita *puff* izeneko jesarleku




kuriosoak ere; bizkarrezurrik ez daukatenez, gainean jesartzean, gorputzaren soslaiaren arabera moldatzen dira. Erosoak dira jarrita egoteko, baina ez hainbeste handik altxatzeko; batez ere, adinekoen kasuan.

Bestalde, geroago eta joera nabariagoa dago egongela eta jangela toki berean batzeko. Mahaia bazter batean batuta egon daiteke, komeni denean bakarrik zabalduz.

Koloreei dagokienez, egongela modernoetan zuria eta beltza egokiak dira; tradizionalak osagai koloretsuekin ere jantzi daitezke.



maderlan




Jesarrita trankil egoteko ere baliatu daiteke logela. Koltxoi biko ohe bateratuak ere sarritan ikusten dira.

Bizimodu mugitua daukateneak asko estimatzen dute lasaitasuna eta isiltasuna; euren eurentara egoteko txoko apartatua. Egongelek ez dute egoera hori beti bermatzen, eta geroago eta gehiago dira logelan jesarrita lasai egoteko txokoa atontzen dutenak. Egunko egunkaria errepasatzeko, literaturan murgiltzeko edo, besterik barik, pentsamenduei atseden emateko baliatzen dute txoko hori, etzan beharrik barik. Zelanbait esanda, egun estresatuaren eta lo sakonaren arteko linbo txiki funtzioa hartzen du.

Oheei buruz berba egitean ia derrigor aipatu behar dira gau-mahaiak. Izan ere, oheen osagarri ezin hobeak dira. Ez dute toki handirik hartzen eta oso funtzionalak dira. Ezin daiteke berdina esan oheburuei buruz. Minimalismorako joerarengatik, oheburuak ez dira sasoi batean beste erabiltzen. Logelako hormak, bestalde, pinturagaz ez ezik, geroago eta sarriago apaintzen dira paperagaz; biak uztartzen dira. Azkenik, koltxoi banako oheek geroago eta zale gehiago daukate.

Logelak, jesartzeko txoko eta guzti



SOLOZABAL
DEKORAZIOA
URARKA, 14-15 • 94 682 03 92 • ELORRIO (BIZKAIA)



gandarias
ALTZARIAK
Ermodo Kalea, Ermodo Kalea 15 eta 25
Arkotxa Kalea 13
Tel.: 94 681 07 22
48200 Durango • Bizkaia





Habia-ohea espazioa irabazteko

Gaztetxoentzako logeletan geroago eta gehiagotan ikusten dira habia-oheak. Bistara dagoen oheaz gainera, azpian bigarren bategaz hornituta daude, eta albo batera tira eginda bistaratzen dira. Gauez atera eta egunez sartuta espazioa irabazi daiteke. Bisitaren bat hartu behar izanez gero ere, estuasun batetik baino gehiagotatik libratu zaitzake. Beraz, abantaila nagusi bi dauzka habia-oheak: ez du espazio handirik eskatzen eta erabilgarriak dira.

Gaztetxoen logeak alaiak izan behar dute, eta efektu hori lortzeko lagun paregabeak dira koloreak. More zein arrosa tonuek bizipoza ematen dutela ezin daiteke ukatu, eta oso kolore erabiliak izan ohi dira hormetan, edredoietan zein altzarietan. Zuriak argitasuna, bizitasuna, alaitasuna esan gura du, eta horregatik more koloreagaz konbinatzeko aproposa da.

Gaztetxoen imajinazioa sustatzea ahalbidetzen duten osagarriak ere garrantzitsuak dira; adin horretan inguruan daukatena xurgatzen dute, eta inguruan daukatenak hezkuntza funtzioa ere betetzen badu askoz ere hobeto. Olgetarako txoko bat atontzea ere gomendagarria da.



Gaztetxoen logeletan habia-oheak abantaila nagusi bi dauzka: batetik, ez du espazio handirik eskatzen eta, bestetik, erabilgarriak dira.



Berriztatze proiektu integralak



mikeldi 6, 48200 Durango
Tel: 94 681 38 95

Sukalde eroso eta praktikoak



Sukalde-diseinatzaileen egitekoa gidatzen duen helburu nagusia praktikoa izatea da: funtzionaltasuna

Eskura daukagun tresneria edo espazioen distribuzioa eta altzarien materialak zein estetika zaintzearen ondorio izango da gure etxeko ezkaratza leku eroso, funtzional eta atsegina izatea. Hori lortzeko askotariko aukerak dauzkagu esku-
ra gaur egun, lehengaiekin zein apaingarriekin ere jokatura: sukaldeko altzari zein etxetresna elektronikoaren ateetan ipintzeko serigrafiatutako koloretako irudiak eta formak dira etxeko gain-
erazko txokoei legez sukaldeari ere bizi direnen ukitua emateko baliatu ditzakegun aukeretako batzuk. Oso leku atsegina eta pertsonala bilakatu dezakegu ezkaratza txikikeri horiekin.

Kolore biziko aulki eta mahaiak asko erabiltzen dira sukalde zuri edo grisei ikutu informal eta alaiagoa emateko

Familia eta bizikide askoren bilgune izaten da ezkaratza, eta etxeko giro bero hori ematen dutelako, beharbada, zurezko altzariak asko erabiltzen hasi dira berriro. Diseinatzaile berritzaile-
nek azken urteetan ekarritako tendentzia da, bestalde, zabaltasuna ematen duen kolore zuria-
ren edo gris edo kolore leunagoen erabilera. Lakatutako materialak erabiltzen dira gaur egun asko, eta ukitu alai eta informala ematen duten koloretako aulki eta mahaiak ere asko erabiltzen dira sukalde-diseinu berritzaileenetan.



piolarrabe

fray juan de zumarraga 19
48200 durango
Tel.: 94 681 16 96
Faxa: 94 681 11 01

elexalde 28
48940 leioa
Tel.: 94 463 13 21
Faxa: 94 463 60 67

Espazioa aprobetxatuz, dena eskura edukitzeko diseinatutako altzariak



Etxeke gainerako txokoetan moduan, ezkaratzean ere metro gutxi izan arren funtzionaltasunean eta erosotasunean galerarik ez izateko sortutako diseinuak dira argazkiotakoak. Bazter bat bera ere erabileratik kanpora geratu ez dadin modua dira etxetresna guztiak hain leku murritzean biltzen dituzten sukalde konpaktuok. Metro askokoak besteko eroak ere izan daitezke ezkaratz txikiok.

Praktikotasuna, hau da, ezkaratzean jarduteko beharrezko baliabide guztiak eskura edukitzea, eta, diseinuari dagokionez, gustu eta poltsiko guztientzako moduko aukerak topatuko ditugu gertuko sukalde dendetan: askotariko kolore, estilo eta materialetako altzariekin egindakoak dira, gainera, sukalde konpaktuok.

**Metro gutxiago eduki
arren, handiagoek
adina baliabide biltzen
dituzten ezkaratzak**



MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK



SANTOS

sukaldeen banatzailea

Tel.: 94 620 26 56
Abadiño (Eroski ondoan)
Faxa: 94 620 01 69

Tel.: 94 625 73 18
Gernika
Faxa: 94 625 07 85



Sukalde-gainerako material berritzaileak: beira eta aluminioa

Ezkaratzetako gainaldeetarako zein sukaldeko altzarietarako, tenplatutako beira erabiltzen da sarritan gaur egun; matea zein distiratsua, gure gustuen arabera da hori ere. Aluminioagaz uztartzen dute sarritan beira. Hainbat efektu eta testura baliatuta, bestalde, zur, harri edo metal itxura duten materialak lortzen dituzte ezkaratzetarako.



Seguru eta eroso

Umeak dituzten familiengan pentsatuz, umeek etxe gehienetan garbiketarako produktu toxikoak gordetzeko erabiltzen diren harraskapeko armairuak zabaltzea saihesteko sistemak eskaintzen dituzte sukaldeak diseinatzeko dituzten etxeek.

Denbora luzean sukaldean behartutako posturan jardutea ekiditeko, bestalde, altuera ugaritan eskaintzen dituzte diseinu-etxeek ezkaratzak. Askotan iristeko gaitzak eta deserosoak izaten diren goikaldeko armairuetan barik, behealdean izaten dute sukaldeko tresnak biltegitratzeko espazioa sukalde askok.

Janaria prestatzerakoan sortutako kea batzeko erauzgailu oso praktiko eta diseinu harrigarrikoak aurkituko ditugu aukeran gure sukalde hornitzailekoan: espazioa aurrezten ere lagunduko digutenn ke-erauzgailu bertikalak aukera aproposa izan litezke sukalde estuak dauzkaten etxeetan ipintzeko.



Sukaldean dihardugunean behartutako posturak saihesteko bezeroaren altuerara moldatzen dituzte sukalde-etxeek altzariak

Heltzeko gaitzak eta deserosoak diren armairuak barik, behealdean kokatutakoak



taket

Sukalde eta bainugelako altzariak

➔ Bertako fabrikazioa

➔ FEBAL italiar sukaldeen ordezkaria


San Miguel 16 • Tel./Faxa: 94 673 45 83 • ZORNOTZA
Olleria 3 • Tel.: 94 620 15 16 • Faxa: 94 620 13 99 • DURANGO
Esteibarlanda 5 • Tel.: 94 655 06 17 • ELORRIO

Zura nagusi etxeko zoruan

Zoruetan haritzak du arrakastarik handiena, eta baldosetan tamaina handikoek

Etxean zurezko lurra da gehien ipintzen dena, zurak erosotasuna eta bero sentsazioa ematen dio-eta etxeari. Haritzak du arrakastarik gehien; gaztainondoa ere erabiltzen da, baina haritza baino apur bat garestiagoa da.

Merkeena, berriz, elondoa da; ukitu gorri-kara duen zura. Zura egokia da bai dekorazio klasikoagaz bai modernoagaz erabiltzeko.




Ettxeko zoruetarako beste aukera bat zura erabili beharrean parket flotatzaileak, mosaikoak... erabiltzea da. Etxeetarako, baina, ez da horrenbeste erabiltzen. Parketaren prezioa ugaria da, kalitate eta lodieraren arabera, baina guztiak erraz ipintzekoak dira.

Etxean giro freskoagoa lortu gura izanez gero, lurrean baldosak jartzea da aproposa; horretarako badaude forma aldetik zura imitatzen duten baldosak.


Hormako baldosak

Baldosa handiak dira orain erabiliak; 40x60 edo 50x50ekoak. Kolore eta marrazkiak gura adina daude aukeran, eta hainbat estilo sortzea ahalbidetzen dute. Erliebeagaz jolastu daiteke, 3D efektua edo testuren kontrasteagaz modernitatea lortuz.



LAGOI S.L.

ERAIKUNTZA MATERIALAK



Biltegia: Arriandi auzoa, z/g • 48215 IURRETA • Tel.: 94 620 33 22 • Faxe: 94 621 58 74

Erakusketa: Montevideo etor., 9 • 48200 DURANGO • Tel.: 94 621 52 84 • Faxe: 94 621 52 85

www.lagoi98.com



Bainugela distiratsuak

Etxean garbitasuna nagusi den lekua

**Koloreak
uztartzea eta
baldosa
handiak
jartzea
ditugu
aukeran**

Erabilgarria izateko sortutako etxeko espazioa izan arren, bainugela diseinu arloan asko garatu da. Ohiko komunak alde batera utzi eta kolore eta forma anitzetako elementuak nagusitu dira. Garbi itxura izatea da helburu nagusia edozein komun sortzerakoan.

Kolore argi eta ilunak uztartzea modan dago. Komun osoan baldosa bakarra jarri beharrean, horma bakoitzean kolore batekoa ipini daiteke. Lerro batean marrazkiren bat daukan baldosak ere jarri daitezke, greka moduan goitik behera edo lerroan. Baldosa handiak dira erabilienak, bai lurrerako bai hormetarako. Etxe askotan komunak espazio txikia hartu ohi duenez, elementuak kokatzerakoan lekua ondo aprobetxatzea oso garrantzitsua da.

Bainuontziak eta dutxak

Bainugeletan espazio txikia edukiz gero, dutxa jartzea izaten da aukera nagusia. Lurraren mailan ipinitako dutxek kabinei aurea hartu diete. Erosotasuna da dutxa bat aukeratzekoan kontuan hartzeko irizpidea. Hidromasaje-dutxak geroago eta gehiago erabiltzen dira etxebizitzetako bainugeletan. Temperatura aukeratzeko txorrotak ere aukeratu daitezke. Dutxa-itxituretan ere askotariko diseinuak dauzkagu. Leku gehien daukatenek dutxaren aldamenean sauna ere jartzen dute, ur-lurrunaren onurak hartzeko.

Bainuontzi zaharren diseinu berriak itzuli egin dira. Ukitu klasikoa ematen diote bainugelari, eta protagonismoa hartzen dute gainerako osagaien artean.



oiz

M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUAK ERAIKUNTZA S.L.

**SANEAMENDU, LOZA, GASA, BEROGAILUAK,
BAINUGELARAKO ALTZARIAK**

Biltegia:
UAI Industriagunea, 2 C - 48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051 • Faxe: 946 818 545

Erakusketa-Denda:
Plateruen Plaza, z/g. - 48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693 • Faxe: 946 818 545

Neurrira egindako bainugelak, norberaren estiloa adieraziz

Bainugeletan ezaugarri nagusia funtzionaltasuna izan arren, diseinua asko garatu da

Bainugeletan funtzionaltasuna izan da orain arte ezaugarri nagusia. Diseinu arloa etxeko espazio honetan lanean hasi dene-tik, baina, itxuraldatu egin da. Jai batera joateko prestatu, bainu lasaigarri bat hartu, liburu bat irakurri edo irratia entzun dezakegu bertan. Erabilera anitzeko gela dela esan daiteke.

Altzariak



Komunean non gorde ditzakegu krema, orrazi, ile lehorgailu, toalla, hortzetako eskuila eta gainerako gauzak? Ohiko armairua ipini beharrean konketa azpian altzaria ipintzea aukera bat izan daiteke.



Hormara josiz gero, lurra garbitzeko errazagoa izaten da. Kolore eta material ugari daude aukeran.

Diseinuko konketak

Forma askotakoak ditugu merka-tuan, bakoitzaren gustuen arabera aukeratzeko. Marrazkidun konketek modernotasuna ematen diote espazioari. Zurezko edo bestelako mate-rialez osatutako oinarrian ezarri dai-tezke.



Konketagaz altzaria jartzea espazioa aprobetxatzeko aukera bat izaten da



urtiaga
gremioen koordinazioa

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA







Txoko bakoitzari, bere nortasuna

Alfonbrekin edo argiztapenagaz jokatu dezakegu

Alfonbrak erabilgarriak dira etxeko txokoak desberdintzeko. Argiekin ere jokatu daiteke, giroak desberdinduz.



Etxeko zorua janzteko, nondik hasi? Alfonbrak egokiak izaten dira pasilorako, egongelarako, logelarako, komunerako... Pasilorako, adibidez, gainera asko pasatuko garenez, alfonbra lodi bat aukeratzeari komeni zaigu; bestela, alfonbra erraz mugituko da lekuz. Ereduak mugatzeko ere balio dezake alfonbra



batek. Egongelan mahaiaren eta aulkien azpian ipini dezakegu alfonbra. Aulki guztien hankak alfonbra barruan sartzea zaindu beharko da kasu horretan.

Zelako alfonbra aukeratu, baina? Betiko alfonbra karratuez gainera, biribilak eta bestelako formatukoak ere badaude, gure etxeari ukitu originala emateko egokiak.

Kolore argiko alfonbrak aukeratzuz gero, leku txikiek handiagoen itxura hartzen dute. Diseinu beragaz hainbat tamainatako alfonbrak daude merkatuan eta guk eskatutako neurriekin bat egitea ere eskatu dezakegu.

Argi bila

Geroago eta argi gehiago eduki, espazio zabalagoko giroa izango du gure etxeak. Kanpotik etxera sartzen den argiak asko lagunduko digu, baina leiho handirik ez badaukagu ere, egin dezakegu zer edo zer argitasuna gure etxean



Royuela decor
Kalebarria, 40 Durango • Tel.: 94 681 05 82
Faxa: 94 603 03 45 • royuela@royueladecor.com



Royuela Decor, S.L.
Id
Revestimientos y Tapicerías

Fray Juan de Zumarraga, 2 Durango
Tel.: 94 681 49 46 • Faxa: 94 620 25 97



ILARGI
ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 . 48200 DURANGO Tel-Faxa: 94 681 24 92



Argi zuriak garbitasuna ematen du, eta zabalera sentzazioa handitu

hedatzeko. Ispilu efektua daukaten materialek lagundu egingo digute: Marmolak, aluminioak, altzairuak, margo metalizatuek, kristalak... argia islatzen dute, eta argiak etxeko txoko gehiago zeharkatu ditzake horiei esker.

Lanparei dagokienez, argi zuria ematen duten lanparek garbitasuna eta zabalera handiagoa emango diote gure etxeari. Egongeletarako zutikako lanpara mota asko dago. Tartean, argi horixka ematen dutenak ere badauzkagu aukeran. Egokiak dira argi beroago batez etxeko txokoren bat desberdintzeko.



Logela zein egongelarako aproposak izan daitezke estore estiloko gortinak

Gortina artetik datorren argia


Gortinak aldatuta, egongela baten edo logela baten itxura guztiz aldatu daiteke, eta baita bertara sartzen den argi kopurua ere. Kolore bakarrekoak eta marradun gortinak konbinatzea gela bati ukitu berezia emateko baliabide ona izan daiteke.

Betiko gortina luzeaz gainera, estore estiloko gortina ugari topatuko ditugu merkatuan. Ekialde Urrunetik dator gortina mota hori, hagatxo tolesgarritz elkartutako panel independentez osatuta dago. Kolore guztietakoak daude, eta logelei ukitu berezia emateko aproposak dira.



MARKIEGI

ARGIZTATZE TEKNIKAK
ARGINDAR PROIEKTUAK



Plateruen plaza, 4 behea DURANGO

Tel.: 94 620 35 20 - 94 620 21 76 Faxe: 94 681 56 95

markiegi@markiegi.com

Koloreak eta detaileak, giroak sortzeko

Etxea dekoratzerakoan, detaileek ere garrantzia daukate, eta horietan birziklatzea aukera aproposa da. Botila hutsez egindako lore-ontziak, esaterako, oso dotore gelditzen dira, eta dirua aurrezteaz gainera, etxean norberak egindako elementuak ipintzen baditugu etxeko txokoak edo etxea bera asko per-




sonalizatzen dugu. Birziklatzeak, gainera, ez dauka mugarik: gura diren elementu guztiak sortu daitezke norberaren sormenaren arabera, beti ere, detaileok ondo emateko denbora eskaini behar dela jakinda.



Koloreak eta itsasgarriak

Interiorismoan hormen koloreak eta konbinaketak hainbat giro desberdin sortzeko balio dute. Koloreen kontrastea bilatu daiteke; horia eta urdina, esaterako. Horregaz ukitu dinamikoa eta alaia lortzen da. Hori bai, kolore batek besteak baino presentzia handiago izatea komeni da. Koloreen konbinaketa harmonikoa beste aukera bat da: koloreen tonuak konbinatzean datza; berdeen konbinaketa, esaterako; beste aukera bat da kolore bat oinarri moduan hartu, arrosa esaterako, eta hormetan kolore horren tonua aldatzea.

Hormetan itsasgarriak ipintzea oso modan dago; ukitu pertsonala ematen diote etxeari. Itsasgarri horiek originaltasuna eskaintzen dute, eta aukera handiak ematen dituzte dekoratzerako orduan. Tamaina, forma eta kolore askotakoak daude.



etarte

www.etarte.com

Euskal Herria kalea z/g, Zaldibar. T/F: 94 603 04 16

Diseinua
Proiektuak
Erreformak
Legalizazioak
Dekorazioa
Sukaldeak
Altzariak
Opariak



UDABERRIKO ESKAINTZA BEREZIA

Etarten, udaberri honetan, horma eta zoruak papel eta alfonbrekin apaintzeko, % 10eko deskontua eskaintzen dizugu. Zatoz Etartera apirilaren 5etik ekainaren 20ra eta aprobe txatu gure eskaintza bereziak.

Etxeko lasaitasunaz eta naturaz gozatzeko gunea



Eguraldi ona egiten hasten denean lorategiei probetxu handia ateratzen zaie; kanpoan bazkaldu edo afaltzeko aukera ematen dute. Hainbat estilotako eta materialetako mahai eta aulkiak daude kokapenaren, beharizanaren eta erabileraren arabera aukeratzeko.

Aulkiak eta etzaulkiak ezinbesteko elementu dira lorategian, etxeko pribatutasun eta lasaitasunean eguzkia hartu edo atsedean hartzeko. Lorategian sofak jartzeak ere erosotasun handia du, eta kanpoaldean ere etxeko giroa sortzen du. Material fresko eta gozoak aukeratzeko gomendatzen da, bero handirik ez izateko. Eguzkitik babesteko itzalki eta eguzki-oihalak gomendagarriak dira, bero handia egiten duenean gerizpea eskertu egiten da-eta.

Jardina altzariz janzteaz gainera, lorez janzteak dotoretu egiten du ikuspegia, eta loreen lurrinaz gozatzeko aukera ematen du. Giro armoniko eta detaile txikiek bertako egonaldia berezi bihurtzen dute.



Brico Centro

Bertan izango dozu:

- Elektrizitatea
- Ferreteria
- Lorazaintza tresnak
- Fitosanitarioak
- Pintura eta osagarriak
- Animalia txikien elikadura
- Etxeko tresnak - Garbikariak - Arropa eta oinetakoak -Automobil tresnak



SAKE S.A. BRICO CENTRO EUSKOLUR
 Pol Eitua. Edif. San Fausto, 1
 48200 BERRIZ
 Tels.: 94 622 53 34/16/93
 Fax: 94 622 54 56
euskolur@sake.es


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA PROMOZIOAK SUKALDEAK ETA BAINUGELAK



HILABETEKO DOAKO FINANTZIAZIOA

Udaberria da urteko sasoirik onena zure sukaldea edo zure bainugela
berritzeko eta Bautistak are errazago jartzen dizu

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroskitondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

PROMOZIO-HONEK FINANTZA-ERAKUNDEAREN ONESPENA BEHAR DU ETA 2010eko ELAINAREN 30a ARTE DAGO INDARREAN

MUSIKA> SARIKETA

Zuzenekoetan erakusten duten indarra nabarmendu du Gaztea Maketa Lehiaketaren epaimahaiak Berrizko Zain taldearengandik, eta 6.000 euroko saria eman epaimahaiaren sari modura.

Unai Uribe Zaineko abeslari eta gitarristak dioskunez, bultzada handia da taldearentzat Gaztea Maketa lehiaketa irabazi izana, eta kanta sortzen jarraitzeko ilusioa berpiztu ei die. Lehiaketara aurkeztu zuten *Aitzakiak* kanta taldekideek eurek ere bereziki

Lehiaketara aurkeztu zuten 'Aitzakiak' kanta berezia da eurentzat

gogoko dutela azaldu digu Unai; kanta berezia dela *Aitzakiak* eurentzat ere. Kantaren arrakastaren arrazoia zein izan litekeen gaitz zaiela asmatzen dio, baina kantaren letra eta doinua diren moduko "zuzenak" izateak eragina eduki ahal izan duela.

Pozik, eta BBK Live kontzertuan parte hartzeko daukaten aukeragaz ilusioz gainezka topatu ditugu Zain laukotea osatzen duten Unai abeslaria, Asier gitarrista, Alberto baxu-jotzailea eta Froufe bateria-jotzailea; eta Euskadi Gaztea irratiaeren Maketa lehiaketaren epaimahaiaren 6.000 euroko saria ondoen zelan inbertitu pentsatzen. Asmoa, besteak beste, orain hiru urte euren diskoa kaleratu zutenetik sortutako kanta berriak bilduko dituen diskoa grabatzea dute.

Zain berriztarrak, Bilbao BBK Live jaialdian jotzeko ilusioz

Gaztea Maketa Lehiaketan epaimahaiaren saria jaso dute lau berriztarrek

Aurrerantzean ere, orain arte legez, presarik barik baina sortuko zaizkien kontzertuetara bidea egiten lagunduko dien bigarren eskuko furgoneta erostea ere bada-rabilte buruan sariaren inbertsio

Sariaren sei mila euroak ondoen zelan inbertitu pentsatzen

aukera moduan. Gaztea Maketa Lehiaketaren epaimahaiaren sariaren ondoren ere musikagaz euren erritmoan gozatzen jarraituko dute, orain arte legez, Zaineko musikari gazteek. ■ I.E.



Christian Martin

Sorpresa itzela hartu dugu

Joan zen egunean zabaldu zuen Euskadi Gazteak aurtengo Maketa Lehiaketaren irabazlearen izena: Zain berriztarren rock doinuak aukeratu zituen epaimahaiak 2010eko hamar finalisten artean. "Sorpresaitzela" hartu dutela eta "aukera paregabea" dela esan digute taldekideek eurekin izan dugun elkarbizketan. Saria jaso eta hurrengo egunean, joan zen bariku iluntzean, Saharagaz elkartzasuna adierazteko Berrizen antolatutako ekitaldian parte hartu zuen laukoteak: euren kanta zuzenean eskaini zizkieten herrikideei eta lagunei Probalekuko oholtzatik. Xanpainagaz, baina, batez ere, lagunek inguratuta ospatu zuten lehiaketa irabazteagaz zabaldu zaien aukera Zaineko lau berriztarrek.

DOKUMENTALA> EMANALDIA

Irango errealtateari buruzko dokumentala Elorrion

Eguenean emango dute 'The Queen and I'

Maiatzaren 13an da Elorrioko Iturri kultur etxean Hilean Behin jaialdiaren barneko hil honetako emanaldia: *The Queen and I* du maiatzeko dokumentalak izena, eta Irango gizarte egoera eta historia erakusten ditu.

Maiatzaren 13an, 19:30ean, emango dute filma Iturri

Suedian, 2008an ekoiztutako filmea da, Iranen jaio eta 1979tik babes politikoa eskaini zion Suedian bizi den Nahid Persson Sarvestani zinegileak zuzendurikoa; datorren egunean, 19:30ean, Iturri kultur etxean eskainiko dute.

Emakume iraniarrek bere herrialdean bizi duten egoera salatzen du egileak filmean. Besteak beste, Finlandiako Vera Film eta Sundance zinema jaialdietan izendatua izan da maiatzaren 13an Elorrioko Iturri ikusgai dugun *The Queen and I* filmea. ■ I.E.

PINTURA> ERAKUSKETA

Apirilaren 30ean zabaldu zuten eta maiatzaren 14ra arte dago ikusgai Imanol Larrinagaren koadroak eta Juan Ramón Makuso, Aritz Gorrotxategi eta Pello Otxotekoren poemak batzen dituen erakusketa.

Makuso, Gorrotxategi eta Otxotekoren olerkiak inspirazio

Makuso, Gorrotxategi eta Otxotekok 2006 eta 2007 urteetan kaleratu zituzten *Hiri gorazarre*, *Zaldi hustuak* eta *Goizalbaren argitan* liburueta olerkiak oinarri edo inspirazio-iturri hartuta Larrinaga margolari eta

'Hitzaren itzalak' maiatzaren 14ra arte Iturri kultur etxean

Margolanak eta olerkiak elkarren ondoan ikusgai

irakasle durangarrak akuarela-gaz egindako koadroak, eta koadro bakoitzaren aldamenen hiru poetek eskuz idatzitako olerkiak topatuko ditu bisitariak Iturri kultur etxeko erakusketan.

Liburueta poemai buruzko irudiak margoztu zituen Larrinagak, eta hiru liburueta azaletan nahiz ilustrazioetan agertzen dira. Berba eta irudi horiek artean bihurtuta eta elkar hartuta ikusteko aukera da Iturri kultur etxeko erakusketan, maiatzaren 14ra arte daukaguna. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MAIATZAK 9 17:30ean HARRITXU MARITXU
ANE MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI
ANTZERKIA. Sarrera: 3 euro (umeek bakarrik)

MAIATZAK 13 22:00etan VUELVE, BIGOTILLO, VUELVE
BANARTE ANTZERKI TALDEA
ANTZERKIA. Sarrera: 3 euro.

MAIATZAK 14 22:00etan POSITIVA + PORCO BRAVO
KONTZERTUA. Sarrera: 7 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

MIHISI GAINEN DANTZA
Aukeran Dantza Taldea

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Maiatzak 8 • 20:00etan

HITZ
Liburua

11.54 661 07 76 Artekale, 14 Durango

AGENDA>

>ANBOToko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 8an, 22:00etan

THE BON SCOTT BAND

The Bon Scott Band taldea gonbidatu dute aurtren Traña-Matienako jaietako rock jaialdira. AC/DC talde ezagunaren bertsioak zuzenean eskaintzera dator talde kataluniarra. Los Carniceros del Norte, Metalmania eta La Leñera taldeek joko dute aurretik, Traña plazan, jaietako bigarren asteburuko egitarauaren barruan.

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

Durangoko Merinaldearen Amarkomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

HOBETUZ
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtza

Europako Gizarte Funtzak zure etorkizunean inbertitzen du

DOAKO IKASTAROA

Langileentzako eta langabetuentzako

Ogiak eta pastelgintza produktuak egiteko ikastaroa

Iraupena: 30 ordu
Aurreikusitako egunak: maiatzaren 24tik ekainaren 3ra (astelehenetik ostegunera, arratsalde).

Pinturazko apainketa-teknikak

Iraupena: 21 ordu
Aurreikusitako egunak: maiatzaren 24tik ekainaren 2ra (astelehenetik ostegunera, arratsalde).

*Oharra: Ikastaroko parte-hartzea mugatua da (langabetuak gehienez %40a)

Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara
www.amankomunazgoa.com

maiatzeko agenda

Maiatzak 8-9-15-16 • Txirrindulari elkarte
09:00 Ibilbide ezberdinak (76-123km)

Maiatzak 9 • Goiurien Santi Kurutz jaiak
11:30 Meza. Ondoren lurretako dantzariak. 18:00 Idi probak

Maiatzak 10-20 • Anderebide
10ean, 16:30-18:00 "Reforzamiento pélvico" ikastaroaren hasiera Goiuria K.gunean
20an, 18:30 Hitzaldia: Empoderamiento de las mujeres a través del conocimiento de sus derechos "Vivimos en comunidad". Isabel Abella

Maiatzak 11-14-19-21 • Lurretako Herri Biblioteka
11an, 17:30 Bularretik mintzora
14an, Ipuin kontalaria: 17:30 3-4 urte: 18:00 5 urtetik gorakoentzat
18an, 19:00 Helduen irakurketa kluba "La mujer de verde"
19an, 19:00 Helduen irakurketa kluba "Burbuilak"
21ean, 17:30-18:30 Haurtxoen irakurketa kluba (3-6 urte)

Maiatzak 14-15 • San Isidro
14an, San Isidro bezpera: Aita San Migel plazan txapliguak iluntzean
15ean, 11:30 lurretako parrokiaren meza

IURRETAKO UDALA

ANTZERKIA

BERRIZ

- » **'Josu Camara eta Marifeli Etxandia'** antzerkia, irudia eta musika uztartzen dituen emanaldia. Maiatzaren 8an 20:00etan Kultur Etxean.

DURANGO

- » **'Vuelve, bigotillo, vuelve'** maiatzaren 13an, 22:00etan, Plateruenean.

- » **'Harritxu maritxu'** antzezlan Anne Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen eskutik, maiatzaren 9an, 17:30ean, Plateruena Kafe antzokian.

ELORRIO

- » **'Jules Vernerren azken bidaia'** kalitateko antzerkia familia guztiarentzat, maiatzaren 9an 17:00etan, Arriolan.

ZORNOTZA

- » **'La Zaranda' (Futuros difuntos)** maiatzaren 7an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

BERBALDIA

ABADIÑO

- » **'Aitatasunari buruzko jardunaldiak'** maiatzaren 12an, 19:00etan, Txanporta kultur etxean.

DURANGO

- » **'III. Pentsamenduaren Poesia' jardunaldia** maiatzaren 7an, 19:00etan, Durangoko Musean.

IURRETA

- » **'Bularretik mintzora'** maiatzaren 11an 17:30ean, Herri Liburutegian.

BESTEAK

BERRIZ

- » **Donejakue bidea egiteko irteera** maiatzaren 22an 08:00etan irten eta 23an 19:00etan bueltatzeko. Izen ematea: Berrizburu kiroldegian maiatzaren 13a baino lehen. Jende kopuru mugatua.

- » Berrizko Udalak **pertsona nagusientzat Leioako Txakolinaren museora irteera** antolatu du maiatzaren 20rako. Doakoa da eta Jubilatuen Etxean izena eman beharko dute joateko interesa dutenek. Autobusa arratsaldeko 15:00etan BBK aurreko geltokian.

DURANGO

- » **Zaki Magoaren emanaldia** maiatzaren 10ean 15:00etan, Landako Gunean.

IURRETA

- » **Iurreta Txirrindulari Elkarteak ibilbideak** egingo ditu maiatzaren 8 eta 9an, 08:30ean lurretan irtenda.

DANTZA

DURANGO

- » **'Gernika, mihise gaineko dantza'** 1937an Gernikak jasandako bonbardaketa du ildo nagusi lan honek, maiatzaren 8an 20:00etan, San Agustinen.

- » **'Dantzaldi-Erromeriak'** Durangoko Plateruena kafe antzokian, maiatzaren 8an, 19:00etan.

ELORRIO

- » **'Gernika, mihise gaineko dantza'** 1937an Gernikak jasandako bonbardaketa du ildo nagusi lan honek, maiatzaren 7an 22:00etan Arriolan.

DEIAK

IURRETA

- » **'Udaleku Ibiltariak'** Urbasatik Elizondora uztailaren 1etik 14ra eta **Udaleku Finkoak** Ozaeta, uztailaren 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkarte.com, edo telefono hauetan: 665 72 82 13-94 620 03 42

ERAKUSKETA

BERRIZ

- » **'Margo lehiaketako lanak ikusteko aukera** maiatzaren 16rte egongo da Kultur Etxean.

DURANGO

- » **'Bariazioak, lokarriak eta grafiak'** Mariemi Otaolak bere eskulturak erakusten ditu. Maiatzaren 30era arte Musean egongo dira ikusgai.

ERMUA

- » **"Eskulturak eta musika tresnak"** maiatzaren 3tik 16ra ikusteko aukera egongo da Lobiano Kulturgunean.

- » **'Kuba elkartasunaren uhartea'** Udal Liburutegiko sarreran maiatzaren 15erarte.

IKASTAROA

BERRIZ

- » **Doako ardo dastaketa ikastaroa** maiatzaren 10erarte, Kultur Etxean egingo da, 18:00etatik 20:00etara. Guztira, lau saio egingo dira ardoaren munduan murgilduko duena.

ELORRIO

- » **'Los fantasmas femeninos que me persiguen: La loca, la Bruja, La puta'** maiatzak 7, 8, 14, 15, 21 eta 22an, Emakume Eskolan. Izena emateko epea ikastaroa hasi baino bi egun lehenago amaituko da. Udaletxean eman behar da izena, bestela, postaz.

ERMUA

- » **Spinning ikastaroa** ostiralera 18:00etatik 18:50era. Informazio gehiago eta izen ematea: Udal kiroldegian.

- » **Gorputza eta erritmoa**; musika, erritmoa eta dantza uztartzen ikasiko dugun doako ikastaroa maiatzaren 12ra arte Lobiano kulturgunean, arratsaldeko 19:00etan.

IURRETA

- » **Reforzamiento del suelo pélvico ikastaroa** (Suspertu Fisioterapeutak taldeko Ane Miren Oyarzabal eta Amaia Lasuen): maiatzaren 10etik aurrera, zazpi saiotan. Izena emateko 616 490 506 telefonoa.

IPUINAK

ERMUA

- » **Arratsaldean kontu kontari** Fernando Pérez de Laborda ipuin kontalariak **'Bazen behin basoan...'** saioa eskainiko du, maiatzaren 8an arratsaldeko 17:30ean, Haur Liburutegian.

JAIK

ABADIÑO

- » **San Prudentzio jaiak Traña-Matienan. Maiatzak 7, barikua.** 20:00etan **Koreografia jaialdia Irati taldeagaz** Traña plazan. 21:00etan San Prudentzio **frontenis txapelketaren finala** frontoian. 23:00etan **Onda Futura diskoteka** Traña plazan. **Maiatzak 8, zapatua, Mozorro Eguna.** 11:30 **Umeendako jolastokia** Galizia plazan. 12:00etan **Umeendako quad-ak** Galizia

plazan. 14:30ean **Bazkari herritarra** Traña plazan, tabernek, txosnek eta Udalak antolatuta. (Euria bada, frontoian izango da). Txartelak salgai txosna eta tabernetan, 12 eurotan. Arratsaldeko 18:00etan **Play back txapelketa** Galizia plazan. 19:00etan **Maskarrada taldeak alaitutako poteoa**, Abadiñoko Iratxoak antolatuta. 22:00etan **Su artifizialak**. Euria edo haizea bada, ez da egingo. 22:30ean **Mozorro txapelketako sari banaketa** Galizia plazan. 23:00etan **Jaialdia** Galizia plazan: **Alto Standing**. 23:00etan **Rock jaialdia** Traña plazan: **Los Carniceros del Norte**, **Metalmania**, **La Leñera**, **The Bond Scott Band**. **Maiatzak 9, domeka**. Eguerdiko 12:00etan **Umeendako jolastokia** Traña plazan. Euria bada, frontoian. 12:30ean **Perretxiko pintxoak eta salda** Trañabarren etorbidean, Geredixa mikologia elkarteak antolatuta. 12:30ean **Potxin eta Patxin pailazoen saioa** Trañabarren etorbidean. **Arratsaldeko 18:30ean V. Danborrada, De Norte a Sur** taldeak antolatuta eta **Sugarri** txarangak alaituta. Arratsaldeko 20:00etan **Donien Atxa** botatzea.

IURRETA

» **Goiurian Santi Kurutz** jaiak maiatzaren 9an goizeko 11:30ean meza, eta arratsaldeko 18:00etan idi-probak.

LEHIAKETA

BERRIZ

» **Jaietako Kartel Lehiaketa** San Pedro eta Santa Isabel jaietarako irudia aukeratzeko lehiaketa. Lanak maiatzaren 14rako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira.

» **2010-2011 Eskola Agenda**. Eskola agendaren aurreko eta atzeko azalak diseinatzeko lehiaketa. Berrizko ikastetxean matrikulatuta dauden 12 eta 16 urte bitarteko gazteak parte hartu dezakete. Lanak maiatzaren 14rako.

» **I. Mural Lehiaketa** Berrizburu futbol zelaiaren aurreko frontoiko horman irudi bat egiteko. Artistek maiatzaren 14rako Udaletxean edo Kultur Etxean zirriborroa aurkeztu beharko dute.

IURRETA

» **Aita San Miguel jaietako kartel lehiaketa** martxan da. Aurkezteko azken eguna ekainaren 18a izango da, Kultur Etxean.

LITERATURA

ERMUA

» **XVI. Ermua Hiria** literatur saria. Lanak maiatzaren 7a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio

gehiago herriko liburutegian jasotzeko aukera.

MUSIKA

BERRIZ

» **Anari** 'Irla izan' lan berriko abestiak lau haizetara entzuteko aukera maiatzaren 7an, iluntzeko 22:00etan, Udaletxeko lorategian.



Maiatzaren 7an, 22:00etan

GERNIKA MIHISE GAINEKO DANTZA

Aukeran Dantza Konpainiaren ikuskizuna 1936an Gernikako Bonbardaketan kokatzen da, bertan gertatutakoa musika eta argien bidez girotzen dute, dantza garaikide eta tradizionala uztartuz. Kontakizuna lehenengo pertsonan kontatzen dute; bonbardaketan hildakoak heriotzatik itzultzen dira, zer gertatu zen kontatzeko. Hondamendiaren aurretik zelako bizitza zuten kontatuko dute, zelan jauzi zen gerraren infernua herrian, zelan birrindu zuen dena eta zelan oroimena- ren bidez jaio daitekeen berriz.

ERMUA

» **Xornadas da letras Galegas**, Folk kontzertua Galiziako Zentroan, San Isidro kalean, maiatzaren 7an 22:30ean.

ZORNOTZA

» **'Quinteto Urdaibai** boskotea' (Elizetan 2010) maiatzaren 9an Bernagoitian, 12:00etan.

ZINEKLUBA

ERMUA

» **'Los abrazos rotos'** maiatzaren 13an 19:00etan, eta 21:30ean Lobiano Kultur Gunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Noche loca (digital)
Zuzendaria: Shawn Levy
barikua 7: 19:00/22:00
zapateria 8: 19:30/22:30
domeka 9: 19:30/22:30
astelehena 10: 19:00/22:00
martitzena 11: 20:00



Umeen zinema

La niñera mágica y el Big Bang
Zuzendaria: Susanna White
zapateria 8: 17:00
domeka 9: 17:00

Estreinaldia

Robin Hood
Zuzendaria: Ridley Scott.
eguna 13: 20:30

ELORRIO

Arriola antzokia
Green Zone
Zuzendaria: Paul Greengrass
zapateria 8: 22:30
domeka 9: 20:00
astelehena 10: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa
En tierra hostil
Zuzendaria: Kathryn Bigelow
domeka 9: 20:00
astelehena 10: 20:00



BOTIKAK

Barikua, 7
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
Zapateria, 8
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Sanroma/ Gaztelumendi/ Sagastizabal/ De Diego/ Balenciaga/ Unamunzaga/Campillo
• Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
Domeka, 9
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
Astelehena, 10
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Martitzena, 11
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
Eguazitena, 12
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Eguena, 13
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango (Landako).....94 621 51 30
Durango (Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

9
13° BARIKUA
Euria egingo du, arratsaldean batez ere, baina tarteka zerua saretu egingo da eta eguraldiak itxura hobea hartuko du. Haizea ahuldu egingo da, baina iparretik jotzeko joera edukiko du.

7
16° ZAPATUA
Lehenengo partean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira zeruan, eta ateri egongo da. Egunaren bigarren partean zerua ilundu egingo da. Haize ahula eta aldakorra ibiliko da, mendebal-osagaia nagusi.

10
16° DOMEKA

12
14° ASTELEHENA

10
16° MARTITZENA

Iaguntzaileak

ABADIÑOKO
UDALAATXONDOKO
UDALADURANGOKO
UDALAELORRIKO
UDALAMALLABIKO
UDALAZALDIBARKO
UDALALAUHANKA[>]

Tenperatura egokia
lortzeko berogailuak
erabiltzen dira

Katuen janari sikua
elikadura apoposa
izan daiteke

Arantza batek
kirikinoaren pisu
guztia sostengatu
dezake

Kirikinoak tenperatura altuak eta gaua ditu gustuko

Goizetan lo egiten dutenez, beharrezkoa da bere bizilekuan gordeleku bat egitea

Etxeko kirikinoa maskota egokia izan daiteke, txikia, isila eta aktiboa delako; 10- 16 zentimetroko tamaina daukate eta, gehienez, 400 gramo pisatzen dute. Gainera, animalia honen zaintzak ez du aparteko lanik eskatzen. Baina beharrezkoa dute tenperatu epelean egotea. Etxean kirikinoa edukitzea modan jartzen dabil, animalia bereziak gustatzen zaizkien pertsonen artean.

Kirikinoa gauzalea da; gauez egoten dira aktiboan, beraz, norberak daukan bizi-ohitura kontutan izan behar da animalia hau maskota moduan aukeratu baino lehenago.

Bizilekua

Goizetan lo egiten dutenez, beharrezkoa da bere egonlekuan gordeleku bat egitea. Kirikinoaren etxea arrainontzi, kaiola

edo plastikozko kaxan egin daiteke, eta komeni da ariketa egiteko gupil bat ipintzea, bestela loditzeko joera dauka-eta. Kaiola behealdean substratua eta xurgatzeko materiala ipini behar da, higiena egokia izan dezan.

Tenperatura

Kirikinoarentzat zaintza nagusia tenperatura egokia mantentzea da, izan ere, eremu epeleko animalia da, beraz, 22 graduko tenperatura izatea beharrezkoa da; horretarako manta termikoa, termostatoa, beroa ematen duten poltsak edo kable termikoak erabili behar dira. Kirikinoa haizetik babestu behar da ez gaixotzeko.

Elikadura

Kirikinoa intsektujalea da, baina etxean egotean zaildu egiten da intsektuz elikatzea edo kirikinoen pentsua lortzea. Ordezko,

katuen janari sikua elikadura aproposa izan daiteke behar dituen proteina eta zuntza dauzkalako.

Ogia eta esnea asko gustatzen zaie, baina oso kaltegarria da eurentzat. Bareak ere oso gustuko dituzte; baratzean utziz gero, kapaz da aldi batean 25 bare jateko.

Bitxikeriak

Kirikinoaren arantza keratinazkoa da, gure atzazkalen eta ilearen moduan. Arantza batek kirikinoaren pisu guztia sostengatu dezake, apurtu barik. Kirikinoak, arantzak erabilia, babes handia lortzen du harraparien aurrean. Baina apo baten azala mastekatzin duenean sortzen duen txistuak substantzia toxikoak dauzka, eta bizkarrean zabaltzen duenean babes handiagoa lortzen du oraindik.

Nire txakurrak burua astitzen du eta zoruagaz igurtzika jarduten du. Zer gertatzen zaio?
Leire (Durango).

Txakurrak mugimendu horiek egiten baditu, segurutik otitisa izango du: belarrietako infekzioa. Batzuetan oso mingarriak izaten dira. Gomendagarria da belarria barrutik aztertzea otitisa dela ziurtatu eta zergatia jakiteko. Batzuetan anestesia behar izaten da belarriko miaketa egiteko. Infekzioaren arrazoiak askotarikoa izan daiteke; alergia, bakteriak, akaroak... Otitisa zerk sortzen duen, horren araberrako tratamendua beharko du.

Bidali zuen galderak
helbide honetara (izena
eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org



Alberto Cimarro
Etorbide Albaitari klinika

KIROLAK >



Argazkia: Brinean

Anboto gora

Anboto Kilometro Bertikala-ren hirugarren aldia izango da bihar, Brinean taldeak antolatuta. Beste behin ere, antolatzaileek estatu mailako espezialistarik onenak batzea lortu dute.

Gizonen artean, Europako igoera bertikalen txapeldun den Agustí Roc eta mendi lasterketen Europako txapeldun den Raúl García etorriko dira. Horrez gainera, iaz Anboto Kilometro Bertikala irabazi zuen Didier Zago ere irteera puntuan egongo da; frantziarra sasoi betean dago, eta oraintsu Berako mendiko maratoi erdia irabazi eta marka berria ezarri du. Esandakoak gutxi balira, iaz Espainiako Igoera Bertikalen Zirkuituko lasterketa bi irabazi zituzten Joan Freixák eta Miguel Caballerok ere ez dute hutsik egingo.

Emakumeen parte-hartzea ere goi mailakoa izango da. Iaz horrelako lasterketetan parekorik izan ez zuen Mónica Ardid —Espainiako Kopako txapelduna— Arrazolan izango da, eta baita Beatriz Fernández eta Maribel Martínez ere. Nerea Amilibia eta Oihana Askorbebeitia abadiñarra ere ibiliko dira.

Anbotorako igoera Euskadiko zein Espainiako lasterketa bertikaleko kopen lehenengo proba izango da. Euskadikoa Txindoki, Izarraitz eta Uhart Arakileko probek osatuko dute; Espainiakoak, berriz, beste lau proba izango ditu: Palentzia, Granada, Alacant eta Segovia-koak, hain zuzen ere.

Lasterketako lehenengo korrikalariak 15:00etan irtengo dute Arrazolatik. Ordutik aurrera

30 segundoko tarteagaz abiatuko dira parte-hartzaileak.

Gazteen parte-hartzea

Gazte mailako korrikalarien parte-hartzea sustatu guran, antolatzaileek kirolari gazteen aldeko apustua egin dute, eta maila hori ere kontuan hartzea erabaki dute: "Lasterketa mota hauetako ezaugarriak oso egokiak dira, 16 eta 17 urteko gazteek goi mailako lehiaketan parte hartze-ko", azaldu dute. ■ J.D.

Espezialitateko onenak etorriko dira, gizon zein emakume

18 Elorrio igoeratik garaipen batera

Emakumeen taldea igoeraren ateetan geratu zen joan zen asteburuan; gizonak bigarren urtez segidan maila bat gorago igotzea lortu dezakete asteburu honetan.

19 Sasikoak derrigor irabazi behar du

Areto futboleko Sasikoak Soloarteren kontra jokatu du bihar arratsaldean. Mailari eutsi nahi badiote irabazi beharra daukate. Zaleen laguntza eta animoa eskatu dute klubetik.

Elorriok gertu daukan igoera atzeratzen saiatuko da lurretako

Batek irabazi eta besteak galduta, Elorrio mailaz igoko litzateke



Zalduaren kontrako derbia 1-0 galduta, hiru puntu baliotsuk ihes egin zieten iurretarrei. A.Dominguez

Liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, Elorrio mailaz igotzeko ederto kokatuta dago. Sei puntuko aldea ateratzen dio lurretakori, hirugarren sailkatuari. Beraz, Elorriok bihar Urtarraren kontrako partidua irabaziz gero, lurretako beste hainbeste egitera behartuta egongo litzateke domeka goizean, Leioa B-ri egingo dion bisitan. Bestela, Elorriok denboraldi bitan segidan mailaz igotzea lortuko luke.

Denboraldi osoa bata bestearen parean ibili ondoren, azken txanpan Elorriok erritmo berari eutsi dio emaitzei dago-kienez, eta lurretakok, ordea, ez. Joko aldetik Jon Gurutz Vázquez gustura dago taldeagaz, baina une jakinetan zorte txarra izan dutela dio: "Zalduaren kontra, esaterako, 70. minutuan sartu ziguten gola eta partiduan

atera jaurti zuten aldi bakarria izan zen". Kontuak kontu, sei puntu atzetik daude, eta orain Elorrioki presioa sartzen ahalegintzea geratzen zaie. Gainera, oraindik promozio posturako lehia bizirik dute, Artibai laugarren sailkatua puntu bira bakarrik daukatelako.

Elorriok iaz igoera lortu zuen ia talde beragaz igo daiteke goren mailara. Iazko eta aurtengo talde argazkiak alderatu-

Elorriok hiru jardunaldi dauzka igoera lortzeko; bigarren urtez segidan lortuko lukete igotzea

ta, hiru jokalaririk bakarrik dira berriak. Aurten mailari eustea zuten helburu, "baina emaitza onak ailegatzen joan ziren heinean geure aukeretan sinesten hasi ginen", dio Angel Díez entrenatzaileak.

"Taldea lasai dago"

Igoeraren aukera gorpuztu ahal, Aste Santu aurretik edo, taldeari "halako ezinegon bat" sortu zitzaioa gogoratu du Díezek: "Egoera asimilatzea kostatu egin zitzaigun". Apurka-apurka, ordea, taldea "lasaitu" egin da, eta orain "konfiantza" dabilta.

Elorriok baja bi dauzka liga amaierara arte: Gotzon Aguirre belauneko zainturatuagatik eta Iñigo Sánchez orkatilakoagatik. Lurretakok Asategik eta Abasolok ez dute jokatu etzi, txartelak direla-eta. ■J.D.

Díazek beste garaipen bi Baquérentzat

Cafés Baqué taldeko txirrindulari argentinarrek Legazpi eta Urrakiko lasterketak irabazi zituen asteburuan. Cafés Baquék sei garaipen dauzka, dagoeneko, denboraldi honetan, eta horietatik bost Daniel Díazek lortutakoak dira.

Legazpin ihesaldia eratu zuten 40. kilometroan, eta eurari eta baldintza gogorrei aurre eginda irabazi zuen. Domekan Urrakin, Meagako gainean, hautsi zen tropela. Díazek 500 metro falta zirela erasoia jota irabazi zuen.

Cafés Baquéko txirrindularia laugarren dago Euskaldun Torneoan, 45 puntugaz. Paul Knepers da liderra 89gaz. ■J.D.

DRTk abantaila politagaz jokatu du itzulerakoa

Jaitsiera promoziojoanekoan 13-28 irabazi zuten, Madrilgo Ingenierosen kontra

Bihar, 16:30ean, jaitsiera promoziojoaneko itzulerako neurketa jokatu du Durango Ilarduyak, Ingenieros Industrialesen kontra. Klubak zaleei dei egin die, ondo bideratuta dagoen kanporaketari behin betirako errematea emateko hauspoa izan daitezen eskatuz.

Durangoko taldeak serio jokatu zuen Madril. Talde batetik bestera aldea dagoenez —Ingenierosek maila bat beherrago jokatu du aurten— ohorezko B mailako erritmoa ezartzen saiatuko zirela azaldu zuen Aratz Gallastegik, eta lehenen-

go zatian lortu egin zuten helburua. Bigarren, taldea ez zen hain suhar aritu, besteak beste, madrildarrak ere, kanporaketa galduta ikusita, dena dela, 15 puntuko aldea atera zuten, eta abantaila polita da biharko lehiari begira. ■J.D.

Klubak zaleei dei egin die bihar Arripausuetara hurreratu daitezen

Unai Zamalloa •
Saskibaloiren entrenatzailea



Final Four 2010

Asteburu hau gorritz markatuta daukagu egutegian saskibaloiren zale garen guztiok, Euroligako 4ko Finala jokatzeko delako Parisen. Urteko hitzordurik garrantzitsuenetakoa da saskibaloian.

Ostiralean finalerdiak jokatu dituzte, eta igandean hirugarren eta laugarren posturako dema eta final handia.

Lehenengo finalerdia, Regal FC Barcelona eta CSKA Moscow-ren artean erabakiko da. Faborito nagusia Barça da. Europako talderik zabalena eta orekatuena dauka. Barruko jokoko jokalariek (Vázquez, Lorbek, N'dong, Morris, ...) bermea ematen dute, nahiz eta kanpotik ere (Ricky, Navarro, Mickeal, Lako-vic, Basile...) benetan jokalaririk bikainak dituen. Moscowko CSKAk, oster, sei-zazpi jokalaririk baino ez ditu erabiltzen partiduko (Holden, Planinic, Siskauskas, Khryapa, Smolis, Langdon...) eta aulkiko jokalarien partaidetza oso urria izan ohi da. Hor egongo da finalerdi honen gakoak.

Bigarren finalerdia ere antzera dator. Faborito nagusia Pireoko Olympiacos da dudarik gabe. Barça-ren antzera, sekulako taldea dauka Giannakis entrenatzaileak (Papaloukas, Teodosic, Childress, Vujcic, Schortsanitis...). Izugarritzko potentziala, egia esanda. Belgradoko Partizan, ordea, lau taldeetatik xumeena dugu. 2,29 metroko Vranesern defentsak kontutan hartuta, oso jokalaririk gazteak dituen taldea dugu (Maric, Vesely, Besovic...). Talde-lana izango da beraien arma nagusia.

Hona hemen, nire pronostikoa: Regal FC Barcelona — Olympiacos finala. Eta nor garaile? Ikusi egin beharko da!

Beteranoen Atletismo Kriteriuma bihar

Durangoko Uria Beteranoen IV. Atletismo Kriteriuma izango da bihar, 16:00etatik aurrera, atletismo pistan. 200 parte-hartzaileetatik gehienak Euskal Herrikoak dira; Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak, batez ere. Besteak beste, Madril, Katalunia, Kantabria eta Galiziatik ere etorriko dira atletak.

Luzera-jauzian Jorge Páez cadiztarra da faborito; berea da Espainiako errekorra, 6,04 metrogaz. Altuera-jauzian modalitateko onenak datoz: Oleg Urmakaz —Eibarren bizi den errusiarra—, Javier Villalobos —hiru bider Espainiako txapeldun izana— eta Daniel Fernández, esaterako.

Korrika eta hesietan

5.000 metroetan Javier Fontaneda eta Medicis gipuzkoarra dira faborito. Mari Jose Gil arrasatearra eta Marisol Ramos oñatiarra aurrean ibiliko dira distantzia luzeetan. Distantzia laburretan, Jorge Páez eta Armando Roca 14 segundotik gertu ibiliko dira.

400 metro hesietan, Asenjo madrildarraren eta Laura Moneo iruindarraren markak azpimarratzekoak dira.

Amaitzeko, jaurtiketan Nekane Munarriz eta Juanjo Mendizabal elorriarra bereiztu behar dira. ■J.D.

Agenda

ERRUGBIA
JAITSIERA PROMOZIOA
Durango Ilarduya - Ingenieros Industriales
Zapatuan, 16:30ean, Arripausuetan

FUTBOLA
OHOREZKO MAILA
Berriz - Deusto
Zapatuan, 17:30ean, Berrizburun
BIZKAIKO KOPA (emakumeak)
Iurretako - Elorrio
Zapatuan, 16:30ean, Larrakozelain

ARETO FUTBOLA
OHOREZKO A MAILA
Sasikoa - Soloarte
Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian
OHOREZKO B MAILA
Elorrioko Baskantza - Inter Euskal Sofa
Domekan, 12:00etan, Elorrioko kiroldegian
EUSKAL LIGA

Sasikoa - Irish Pub Sheperds
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian
GOREN MAILA
Mallabia Bastida - Askartza Claret
Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

SASKIBALOA
NAZIONAL MAILA
(emakumeak)
Tabirako Baqué-Arabako EHU
Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
Anbotopeko - Rover
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

Mailari eusteko hil ala biziko partidua du Sasikoak

Soloarte arerio zuzenari derrigor irabazi behar diote; klubetik zaleen laguntza eskatu dute

Irabazi ala irabazi; ez dago besterik. Ohorezko A mailari eutsi gura badio, Sasikoak hiru puntuak batu behar ditu, derrigor, bihar (18:30ean hasita) Soloarteren kontra. Hiru talde jaitsiko diren mailan, Sasikoa azken hiru garren dago, eta Basauriko taldea azken laugarren. Puntu biko alde dago bien artean. Beraz, azken jardunaldira aginte makila eskuan dutela heldu gura badute irabazi beste aukerarik ez dute.

Biharko partiduari begira baja bi ditu Sasikoak; dagoeneko behin baino gehiagotan aipatu dugun Borja Crespo aurrelariarena —meniskoa apurtu zuen— eta Xabi Goitiarena, gaur hamabost hankako behatz bat apurtu zuen-eta.

Azken jardunaldian, Durangoko taldeak konpromiso errazagoa du teoriarik. Sasikoak etxetik kanpora jokatu du

Muriedasen kontra; talde hori azken bosgarren dago sailkapenean. Soloartek, berriz, Elemental Peñucas hirugarren sailkatua hartuko du etxean.

Mallabia eta Mendibeltz

Mallabiak ere partidu garrantzitsua jokatu du asteburuan, baina jaitsiera beharrean igoera izango du jokoan. Goren mailan talde bakarra igoko da, eta hiru jardunaldiren faltan Mallabia lider dago, Ibaizabali hiru puntuko alde ateratzen diolarik (averagea mallabitarren aldekoa da). Beraz, asteburuan matematikoki igoera lortu dezakete.

Dagoeneko matematikoki laguntzarik behar ez duena Durangoko Mendibeltz taldea da. Asteburuan 3-6 irabazi zuten Ibaibideren kantuan, eta, ondorioz, lehen erregionalerako igoera lortu zuten. ■J.D.

Liga amaituko dute Kulturalak eta Abadiñok

Durangoko Kulturalak denboraldiko azken neurketa jokatu du bihar, Arenasen zelaian. Liga ahalik goren amaitzea besterik ez dute jokoan. Kulturalak liga txukuna osatu eta zaleen ilusioa berpiztea lortu du aurten.

Bigarren erregionalean Abadiñok Arrautzaldeon taldearen zelaian agurtuko du denboraldia. Abadiñarrak sailkapenaren erdian ibili dira urte osoan eta ez dute estuasunik izan.

Elorrio B, Ezkurdi, Extremeño eta Berriz Bk ere liga amaituko dute hirugarren erregionalean. Berriz Bk igoerako play-offa jokatzeko eskubidea lortu du dagoeneko. ■J.D.

Lurretako eta Elorrio aurrez aurre Kopan

Lurretako eta Elorrio elkarren kontra ikusteko aukera bakarra Bizkaiko Kopan izango dugu aurten zein datorren denboraldian. Elorriok bigarrenetik lehenengo erregionalerako igotzeko aukera zuen azken jardunaldian, baina, zoritxarrez, galdu egin zuen Enkarterriko Neskak lideraren kantuan (3-1). Ugeragak, aldiz, 2-3 menderatu zuen Portugalete eta eurak igoko dira.

Bizkaiko Kopako lehenengo kanporaketa elkarren kontra jokatu dute lurretakok eta Elorriok. Bihar, 16:30ean hasiko da partidua Larakozelain. ■J.D.

Tabirakok sasoi betean amaituko du denboraldia

Tabirakoren emakumeen talde nagusia liga amaiera ederra osatzen ari da. Izan ere, azken hiru partiduak segidan irabazi ditu Deustu-Loiola, San Ignacio eta Obenasa taldeen kontra. Bihar denboraldiko azken neurketa jokatu dute etxean, Arabako EHUrren kontra.

Aurten bost bider lortu du bi partidu jarraian irabaztea, baina hiruko markara heldu bakoa zen orain arte.

Azken jardunaldiaren faltan, zazpigarren daude sailkapenean, eta dagoeneko ez dute gorago amaitzeko modurik, Las Gaunas garaipen bira dutelako. ■J.D.

Uriarte irabazle GRAVNen eta Traña-Matienan

Rober Uriarte pilotari abadiñarrak txapel bi jantzi zituen iragan asteburuan. Alde batetik, Bizkaia GRAVN txapelketako buruz burukoa eman zion trinketean. GRAVNen binakako txapelkunak ere eskualdeko dira: Mikel Gonzalez berriztarra eta Ander Martin mallabiarra.

Uriarte San Prudentzio Pilota Txapelketan ere nagusitu zen Anartz Ajuriagaz bikotea osatuz. Gazteetan Markel Etxaniz eta Andoni Aizpuru azpeitiarrek jantzi zuten txapela eta kadeteetan Olano leizarra eta Artola alegiarrak. ■J.D.



Borja Crespok eta Xabi Goitiak ezingo dute jokatu biharko partidu erabakiorrean. Ana Dominguez

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MAIATZAK 20 osteguna - 17:30 *2. zikloa*

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN MAIATZAK 20 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian

etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest



anboto.iragarkilaburrak.com

FURGONETAK

SALDU

Renault Traffic 2.5 c.c 140 zaldi potentzia, eki-patua. Prestatutako furgoneta salgai. Ohea eta kaxoiak, argirik sartzen uzten ez duten kortinak. Dena kendu daiteke karga eramateko. Bizikleta eramatekoa opari. 130.000 km bete gabe, koreak eta olio orain dela 500 km aldatuak. Beti pertsona berberak gidatu du eta garajea gordeta egon da. Beste furgoneta haundiago bat erosiko dugulako saltzen dugu. Prezioa negoziatu daiteke. Lehenbailehen saldu nahi genuke. Posta elektronikoa: bzarana@yahoo.es

MOTORRAK

SALDU

Scooter suzuki burgman 250 salgai.. Scooter Suzuki Burgman 250 salgai. Kolore urdiÀaa. 2008 urtekoa. 5000

km. Egoera oso onean. Prezioa 3800 euro transferitua. Telefonoa: 626-15 88 22

Trialera salgai. Trialera Montesa Cota 311 salgai 800 euro. Egoera oso onean. Ikustea nahi baduzu, etorri konpromiso barrik! Telefonoa: 609 56 75 37 (Jose)

GAINERAKOAK

SALDU

neguko gurpilak salgai. Salgai ditut neguko lau gurrpil bere lantekin. Gupilen tamaina :185/55 R14. la berriak, kilometro gutxi eginda. Telefonoa: 679-31 75 59 nerea

Karro-denda. Sango karrodenda salgai. Erantsitako abantzea duen irekiera azkarreko atoi-denda da, eta 4/6 pertsonentzako ahalmena du. Egoera

onean dago. Telefonoa: 609 56 75 37

Harremanak

NESKA BILA

Durungaldea. 42 urteko gizona neskalagun bila. Interesatuta bazaude deitu nazazu. Telefonoa: 626 86 49 71

GAINERAKOAK

Txoko bat sortzeko jendea behar da Durangon. Mendizabal auzunean txoko bat sortzeko jendea behar da. Oso interesgarria. Interesatek deitu hona: Telefonoa: 605 711 331 edo 630 839 325

Aisia/kirola

KIROLAK

SALDU

Sailfish vibrant neopreno berria salgai. Sailfish Vi-

brant gama altuko neopreno berria salgai. Gizonezkoen "S" neurrikoa da (165-178 cm/68-75 kg).

ANIMALIAK

SALDU

Txakurkumeak salgai. Euskal artzai txakurkumeak daude salgai. 2 hilabete betetze-ko daukate. Interesatuta ego- nez gero deitu telefono zenbaki honetara: 64570 91 38 (Enrike)

GAINERAKOAK

Txakurra ematen da. 7 urteko txakurra daukat doan emateko. Arraza: Husky/Boxer. Baserria zaintzeko aproposa da. Interesatuak deitu 618204793 edo email-a bidali

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurilartzen erregistratutako txakur hezitzailea hainbat zerbi-

tzuetarako prest. Telefonoa: 656 791 027

MUSIKA/PELIKU-LAK/LIBURUAK

SALDU

Trikitixa salgai. Trikitixa salgai 1.000 euro. Telefonoa: 687 28 19 81

GAINERAKOAK

EMAN

Biodantza ikastaroa. Biodantza ikastaroa eskaintzen dut, barikuetan, Elorrioko Lourdes ikastetxean. Telefonoa: 626-661 292

Familia/etxea

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

Chicco aulkia, 3osagaie-

kin: kukoa , moisesa, aulkia. Trio Chicco delakoa, egoera onenean. Honekin batera beste moises bat eustekoa eta hama-ka bat oparitzen ditut. Nahi duzunean ikus dezakezu.

Haurrentzako eskaileretarako segurtasun barreira. Hainbat luzeratarakoa. 40 euro. Telefonoa: 655 742 241

Haurrentzako ohea eta sehaska. Ikea-ko Diktad haurrentzako sehaska-ohea. 70x140 zm. Koltxoak bi altueratan ipintzeko aukera du. Latex-eko Ikea-koa ez den koltxoa barne. 95 euro. Telefonoa: 655 742 241

Neskato arropak eta oinetakoak. 100 ale, neska txikiarentzat(3 hilabetetik 12 hila- betera) eta oinetakoak, 5 pare, sasoi onenean.



INMOBILIARIAK

San Agustinalde, 4 - 1 Ezk.DURANGO
TF.: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

BERRIZ

- Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000 €.

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamento berriak eraikitzen.700 hilero.
- Atxondo: 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekook.
- Zeharkale: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela-jantokia eta komuna.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Kanpatorrosteta: 3 logela. 70 m2-ko terraza. 28 m2-ko garajea.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, garajea eta trastelekua. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

MALLABIA

- Trabakua: Baserria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- Gustiz berriztuta dagoen baserria. 3 solairu, sukaldea, egongela -jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo • Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Erretentxu: Salgai. Adosatuak eraikitzen.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Anbrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astola bidea: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Ermodo: Halla, sukalde-jangela, egongela, 4 logela eta 2 komun. 2 terraza (bat oso handia).
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Intxaurrondo: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- Iparragirre: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 3 logela eta komuna. 2 balkoi.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kanpatorrosteta: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 3 komun. Terraza handia. Garaje itxia.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Gustiz barriztuta).
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Gustiz barriztuta eta erdi jantzia).
- Komentu kalean: Halla, sukaldea, egongela- jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.

AGENCIA INMOBILIARIA
ISD
Asaskatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta ganbararekin 200.000€+ BEZ
 - 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€+ BEZ
 - 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€+ BEZ
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentuak. Ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 120 m2.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Berriz eta Zaldibar: Etxebizitzak salgai. Deitu gaitzazu eta konpromiso barik erakutsiko dizkizugu!
- Abadiño, Muntzaratz eta Elorrio: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeo aukerarekin.
- Durungaldea: Baserriak,txaletak,pabilioiak eta garajeak hainbat zonaldetan, salgai edo alokairuan.
- Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berriztatua.
- Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 57 m2. Erdi berria. Logela bakarra. Balkoia.
- Alluitz – Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Txibitena - Landako: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
- Zumalakarregi – Ezkurdi: 208 m2. 5 logela. Etxe osoa berriztatu behar da.
- Zumalakarregi - Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Ezkurdi: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Askatasun Etorbidea: 75 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Frantzisko Ibarra: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garaje aeta trastelekua.
- Tabira: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. 2 balkoi.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

AGENCIA INMOBILIARIA
ETXETXO
Saibigain, 1 (barrera F. J. de Zumarraga kaleatik)
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO • ietxetxo@hotmail.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Untzillatz: Erdi berria. Trastelekua eta garajea.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Madalenoste: Erdi berria. 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Durango: Erdi berria. 90 m2. 2 logela eta 3 komun. Trastelekua. Garaje itxia. Terraza handia.
- Astepe: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Antso Eztegi: 2 logela eta komuna. Berriztatua. 198.000€.
- Franzisko Ibarra: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 318.600€.
- Tabira: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Trastele- kua eta garajea.
- Durango: 120 m2. 4 logela eta 2 komun. Egoera onean.
- Alluitz: 105 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara.
- J. Olazaran: Erdi berria. 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
- Durango: 2 logela. 156.300€.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea.
- Ezkurdi: 70 m2. 1.go solairua.
- Tabira: 80 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Gustiz jantzia. Garajea aukeran. 216.400€.
- Mendizabal: 2 logela. Erdi berria. Ganbara eta garaje itxia.
- Pinondo: 70 m2. 3 logela. Garajea aukeran.
- Plateruen Plaza: 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Durango: Adosatua. 400 m2.
- ATXONDO: Txaleta. 4.000 m2-ko lursaila.

IURRETA

- Dantzari: 3 logela. 192.000€.
- Bixente Kapanaga: 110 m2. 4 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000€.
- Askondo: Pisu altua. 3 logela. Terraza. Garajea aukeran. 192.400€.
- Maspe: 3 logela. Igogailua. Berriztatua. 198.400€.

NEGOZIOAK

- Tabira: 50 m2. Alokairuan edo salgai.
- Taberna – jatetxea: 230 m2. 70 pertsona. Alokairuan edo salgai.

ABADIÑO

- San Trokaz: 2 logela. Erdi berria.
- A.Baesclin: 3 logela. Ikuspegi politik.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trastelekua. Garajea.
- Muntzaratz: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea. 275.000€.
- Abadiño: Bifamiliarra. 300 m2. 290 m2-ko lorategia.

DENPORAPASAK>

	Txulapain go herria Bizitasunik gabe	Sudurreta ko jario Izukaitez	AEBetako ur-jauziak
Malgutas una Beso estalgarría	Laharra Hegatsa	Bizkaieraz, azeri Mendeko a	Kontso- nantea Zarata eginez
* Durangoko jauregia Mugerrrek o	Eskaini eta ez eman Galga	Jainko egiptoarra Izur	Ahuntzare n ar
Atzizkia Gar	Maila Informazio unitate	Haize oihalak Aluminioa	Izaten ahal naiz Gizon izena

1	5	8		4	9		
			6				
6	3				1		
7		6	5				
			2	1	6		3
5				8			4
	9	1				2	5
		7		9		8	
4	8			7			6

2	1	3		7			
						9	8
			9	3			
						4	9
8	5	2					
			6			2	
	6	8			5		
		4			2	3	
5					6		2

HOROSKOPOA >



Aries

martxoak 21 - apirilak 20

Goibel antzean zabilta, aste honetan ez daukazu jendartean egoteko gogo handirik. Hausnarke-tarako sasoia da zuretzat.



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Besteen iritziei ez diezu hainbeste-ko garrantzirik eman behar, nahastu egiten zara-eta.



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Pazientzia handia izan duzu egun hauetan, baina ez da horrelako egoerarik berriz sortuko, neurriak hartuko dituzu-eta.



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Gustura zabilta lanean, eta gauza asko ikasteko aukera daukazu gainera. Aprobetxatu eta energiaz eta alaitasunez bete zaitez.



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Primerako asteburua datorkizu; sorpresa atseginen bat jaso dezakezu. Ez izan dena lotuta; ustekabekoei ere lekua utzi.



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Bikoteagaz ondo baino hobeto zaude, zeraz, momentu berezia aprobetxatu egizu. Laneko errutina-tik irtetzea komeni zaizu.



Libra

irailak 24 - urriak 23

Bikotea bilatzeko sasoi egokia da, ondo pasatzen duzu aspaldion eta ingurukoekin konpartitzea gustuko duzu.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Ezin isilik egon... Lagunen bat mindu dezakezu, berak zuri esandakoa besteei kontatzeagatik. Egoerari aurre hartu behar diozu.



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Ezin da beti batek gura duena egin. Eta zuk aspaldion ez duzu hori ikusten. Haserre zabilta, baina zeuk gura duzulako.



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Ezin duzu dena kontrolpean eduki, eta horrek ezinegon sortuko dizu. Bide zabalgotik ibili behar duzu, eta ez orain artekoak lako estuetan.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Lana topatzeko aukera izan dezakezu, asko saiatzen zabilta-eta. Bitartean, beste gauza batzuk egiteko aprobetxatu egizu.



Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Ez zaude beti bezain alai. Hala ere, ez zara etxean gelditzen, eta horrek on egingo dizu.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Zorionak **Irati** bigarren urtebete-zean. Ondo ospatu eguna. Otxandio aitita Karlos, amama Enkarna eta osaba Unairen partez, belarritik tirakada bi.



Gure etxeko mutikotxo maitagarri eta alaia den **Auritz Ugaldea Arteagak** maiatzaren 4an 6 urte egin ditu. Zorionak Elene, guraso eta familia osoaren partez.



Zorionak **Idolia**! Maiatzaren 13an 11 urte egingo ditu. Ondo pasatu zure egunean, eta jarraitu hain jatorra izaten. Musu bat, laguneren eta familiaren partez.



Josebak maiatzaren 8an lehenengo jaunartzea egingo du. Zorionak eta ondo pasa. Musu bat aita, ama eta Ametsen partez.



Zorionak **Mariana Paulista Alvaro** Pep Guardiaren jarraitzaile amorratuari, maiatzaren 8an 64 urte egin dituzulako, Carmen eta Romanen partez.



Zorionak **Izaro**! Ondo pasatuko zenuen urteguna, ezta? Bigarren urtea ondo hasi eta musu handi bat. Zorionak zuri, zorionak beti... Jontxuren partez.



Gaur gure aitaxo **Angelek** urtetxo batzuk egin ditu. Zorionak eta musu potolo eta gozoak, Maddi eta Enaitzen partez.



Izurtzako **Pirritx** berezi honek zortzi urte egin zituen maiatzaren 8an. Bere familiaren partez zorionak eta mosu pila patata tortilla.



Iael Racionerok maiatzaren 4an urteak egin zituen. Zorionak eta musu bat Iael, zure 28. urtebetetzean, etxekoaren partez.



Zorionak **Paula**! Argazkiko printzesa honek astelehenean lau urte egin zituen. Zorionak Irati, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak **Manex**! Santrokazak bete-betean harrapatu zenituen iaz. Zuk bai jakin. Burrundara entzun, eta kalera. Zorionak, Jontxu eta izeko Amaiaen partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia ematea.

EKODEN

HORTZ KLINIKA



Arkotxa, 4 etxabea
DURANGO
Tel. **94 621 78 22**

*Hortz-protezia mugitzen bazaizu,
implanteen bidez hezurrera
finkatzeko tratamenduak jartzen
ditugu zure eskura*



*Ortodontzia-
tratamenduak,
marruskadura
txikiko braqueten
bidez, urte betean*



mutualia *ko* **Itunpeko
Klinika**

% 5 ETIK 10 ERA
A R T E K O
BEHERAPENAK
H O R T Z -
INPLANTEEN
TRATAMENDUETAN

**Zure tratamenduak 12 hilabetetan
finantzatzeko ditugu, interesik gabe**

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

harritu egingo zara

AKUILUAN

■ Amaia Ugalde

LAUHORTZA



Jon Artza
Soziologoa

"Irakurtzen ditudan heinean, testuak neureganatu egiten ditut"

Ipuinak kontatzea baino, gustuko dituen testuak irakurtzea gustatzen zaio Maria Uriarte elorriarrari

Ipuinak entzungai jarri dituzte www.etxegiroan.com webgunean. Testuei ahotsa jarri diona Maria Uriarte elorriarra da. Mimo handiagaz landutako testuak aukeratu dituzte, entzuleen gozamenerako.

Ettxegiroan.com ekimena zelan jarri duzue martxan?

Urteetan lantzen dihardugun proiektua da. Tomas eta biok bikoitekide gara, eta elkartu ginenean bera soinu teknikaria zen, nik itsuekin lan egiten nuen, eta liburu hiztunak eskoletarako grabatzen nituen. Irakurzaletasuna sortu zitzaidan, eta bion artean etxean hasi ginen. Lagun baten enkarguz audio liburu bat grabatu genuen. Bilboko Alde Zaharrean bizi gara, eta Tas Tas irratiarako ipuin labur eta poemak grabatzea eskatuz giten. Liburuen aurkezpenetarako ere atal batzuk grabatzen genituen.

Lanak pilatzen joan zarete.

Tomasek pentsatu zuen egindako behar hori guztia webgune batean ipini genezakeela, gure lana eskaintzeko eta gure lanaren erakusleho izan zitekeela. Lagunek ere gure testuen kopiak eskatzen zizkiguten eta beti genbiltzan kopiak egiten.

Webgunearen atzean nortzuk diharduzue?

Nik ahotsa jartzen dut, baina Tomasek ezkutuan soinu teknikari moduan behar handia egiten du. Musikari izandakoa da. Ahotsa gozatu eta dena parekatzen du.

Batzuetan musika neuk aukeratzten dut, baina berakerritmoa eta musikalitatea gehiago lantzen du. Beste lagun ba tprogramatzailea da, eta asteburuetan etxera etorri eta webgunea hementxe sortzen dugu.

Zer irizpide jarraitu duzue?

Garbi izan dugu ikusmen urritasuna dutenendako erabiltzeko erraza izatea gura dugula. Atal gutxi ditu, kontraste asko letra eta fondoaren artean. Garbitasuna. Sinpletasuna.

Ipuinak kontatzeko zaletasuna zelan sortu zitzaizun?

Kontatzea baino, irakurtzea gustatzen zait. Umeendako grabatzen hasi nintzen. Kabinan sartzerakoan sortutako giroa, entzungo duenaren eta zure artean, oso polita da. Ilobak oheratzen zirenean, loak hartzeko grabatu egiten nizekien.

Helduendako ipuinak ere landu dituzue.

Tas Tas irrati librerako egindako lanak webgunean jarri ditugu.

Testuak zelan aukeratzten dituzu?

Irakurri eta zeozerk kolpatu egiten zaitu. Poema batek zeozker esan diezazuke, edo gogaitu. Ukitu egin behar zaitu.

Aukeratutakoan zelan lantzen dituzu?

Irakurtzerakoan testua neureganatu egiten dut. Hiztegia begiratu eta markak egiten ditut, non gorantza egin eta non beherantza egin jakiteko. Umeendako bada, pertsonaia bakoitza gorpuzten dut. Ahotsarekin asko jokatzen dut. Ahotsarekin kolorea eman diezaiokezu. Ume txikiak balira moduan tratatzea ez zait gustatzen.

Umeak oso azkarrak dira. Testuak

gaz jokatzea gustatzen zait, baina gozoegiak egitea ez dut gogoko. Helduendako ipuin edo pasartee-tan hiztegi eta markak asko lantzen ditut, baina ez dut larregi interpretatzen. Irakurtzen zabiltzana beste batek ulertzea erraztea da garrantzitsua. Denbora ematea, belarria ipintzen duenari esaten zabiltzana ikusteko.

Ipuin kontalari moduan lan egiteari zer deritzozu?

Ezkutuan lan egitea gustatzen zait. Etxe txokoan gusturago nago. Lana ondo-ondo zaintzea gustatzen zait. Grabatu egiten dugu, eta handik pare bat egunera entzun.

Bazkaria prestatzen nabilela, esate baterako, belarria bestelako egoeran dagoela, eta beti ikusten duzu zer hobetu. Denboragaz lan egitea gustatzen zait.



Maria Uriarte •

Elorriarra da, baina Bilbon bizi da

Ettxegiroan.com webgunea sortu du

Mendigintza

Asko dira, gehiegi, lan-istripuetan hiltzen diren beharginak. Zenbait kasutan jabe edo/eta langileen utzikeria tarteko izaten bada ere, istripuak, produkzio sistemaren berezko ezaugarri dira. Lehiakortasuna ardatz harturik, presa eta presio pean lan egiten da, eta horrek norbera eta ingurukoak babesteko neurriak malgutzat dakar.

Mendian ere izaten dira ezbeharrak, baina hauek beste era batera azaldu izan dira. Mendizalea ez da lanean ari, gustuko duen kirola praktikatzen baizik. Gainera, sarri, mendian jazotako heriotzei kutsu erromantikoa gaineratu izan zaie: "mendiak bere egin du", "nahi zuen tokian eta nahi zuen moduan zendu da" eta antzerako esaldiak maiz entzun izan ditut. Hala ere, azken boladan aldatuak suma daitezke. Mendiko kirola esparru profesionalan sartu da, eta hori ez litza-teke txarra izango modu orekatu batean izango balitz. Ezezkoan nago, ordea: enpresek, espedizioa babestean gain, helburuak errentagarritasun ekonomikoaren arabera moldatzen dituzte. Ondorioz, lehiakortasuna areagotu eta naturak eragindakoaz landa, bestelako presioak agertzen dira. Tontorre-iragotzea, erronka pertsonala izatetik helburu profesionala izatera pasatzen da. Mendiko kirola mendigintza bilakatzen da.

Pasa den astean, Annapurnan izandako ezbeharrak zer pentsatua eman du, eta asko izan dira mendian jada elkartasuniez dagoela ozen adierazi dutenak. Jakina, elkartasuna, dirutan zenbatzen hasten den une berean bukatzen da.

AC/DC

San Mames zelaian!



Zozketan parte hartzeko sar zaitetz:

www.anboto.org
webgunean

Zozketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 27a izango da. Irabazlearen izena, 28an, eguerdiko 12:30etan jakinaraziko da webgunean eta anboto irratiari

Lor itzazu dohainik AC/DC ikusteko sarrera bi Rock Izar Eskola eta Anbotoren eskutik



Alluitz, 3 behea

Durango

Tel.: 94 603 27 50

www.rockizarra.com